Isaak Díez (1891-1962)

Arabar artista baten bizitza eta obra

Vida y obra de un artista alavés



Koordinatzailea / Coordina

Sara González de Aspuru Hidalgo
Begoña Bravo María
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

AARE Servicios Culturales

Testuak / Textos

Ana Arregui Barandiaran
Cristina Armentia Alaña

Testuen itzulpenak / Traducción de textos

Arabako Foru Aldundiaren Euskera Zerbitzua
Servicio de Euskera de la Diputación Foral de Álava

Argazkiak / Fotografías

©Archivo Fotográfico Museo de Bellas Artes de Álava
© Javier Agote
© Gert Voor in't Holt
©Archivo Fotográfico del Museo Fournier de Naipes de Álava
© Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz "Pilar Arostegui" (AMVG)
© Archivo de Álava
© Biblioteca y Archivo Azkue de Euskaltzaindia
© Euskariana
© Fundación Sabino Arana Fundazioa
© Fundación Sancho el Sabio Vital Fundazioa
©Jean-François Peirè
© Inventaire général Région Occitanie
©Yad Vashem, The Holocaust Martyr´s and Heroes Remembrance Authority, Jerusalem.
© Gert Voor in´t Holt

Diseinua / Diseño

Hélice creativos

Argitaratzailea / Edita

Arabako Foru Aldundia
Kultura eta Kirol Saila

Diputación Foral de Álava
Departamento de Cultura y Deporte

Inprimatzailea / Impresión

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia
Imprenta de la Diputación Foral de Álava

ISBN: 978-84-128392-3-4

LG G 575-2024

Ana Arregui Barandiaran

Cristina Armentia Alaña

Isaak Díez (1891-1962)

Arabar artista baten bizitza eta obra

Vida y obra de un artista alavés

Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Presentación

La figura de Isaak Díez no es muy conocida fuera de los límites de nuestro territorio. Pertenece a una generación de artistas que crece a la sombra de las grandes figuras del arte alavés, especialmente la de Ignacio Díaz Olano. Son artistas con trayectorias dispares como Obdulio López de Uralde, Saturnino Ortiz de Urbina o Adrián de Aldecoa, a los que une su formación en la Escuela de Artes y Oficios de Vitoria y el magisterio que sobre ellos ejerció el ya mencionado Díaz Olano. La bibliografía sobre el autor es escasa, pero hay que destacar las aportaciones de José Luis Sáenz de Ugarte y Santiago Arcediano[1] para conocer mejor su trayectoria.

Isaak Díezen estudioa. Estudio de Isaak Díez. Ceferino Yanguas. Hacia 1935 aldera.
GUA/AMVG 01-YAN-13x18 C_05.

Son pocas las obras pictóricas del autor que se han conservado en colecciones públicas; además de las de este museo, podríamos añadir un retrato del arquitecto Justo Antonio de Olaguibel perteneciente al Ayuntamiento de Vitoria. Tampoco contamos con reproducciones de sus pinturas ya que, aunque

1 MARRODÁN, Mario Ángel, *La escultura vasca,* La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980, p. 113, pp. 118-119; *Isaac Díez Ibáñez* en https://dbe.rah.es/biografias/67606/isaac-diez-ibanez [consulta 20/02/2024], *Díez Ibáñez, Isaac* en https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/diez-ibanez-isaac/ar-44596/ [consulta 20/02/2024]

Aurkezpena

Isaak Díez ez da oso ezaguna gure lurraldearen mugetatik kanpo. Arabako artista handien itzalpean, bereziki Ignacio Díaz Olanoren itzalpean, garatu zen artisten belaunaldikoa dugu. Belaunaldi horri atxikitako artistek oso ibilbide bestelakoak izan zituzten, hala nola Obdulio López de Uraldek, Saturnino Ortiz de Urbinak edo Adrian Aldecoak. Horiek guztiek prestakuntza hartu zuten Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan eta guztiek ere arestian esandako Díaz Olano izan zuten irakasle. Egileari buruzko bibliografia urria da, baina Diezen ibilbidea hobeto ezagutzeko xedez, José Luis Sáenz de Ugarte eta Santiago Arcedianoren ekarpenak azpimarratu behar ditugu.[1]

Gutxi dira bilduma publikoetan gorde diren egilearen margolanak; museo honetan gorde direnez gain, Gasteizko Udaleko Justo Antonio Olaguibel arkitektoaren erretratua ere aipa genezake. Isaak Diezen margolanen erreprodukziorik ere ez dugu; izan ere, erakusketa ugaritan parte hartu zuen eta ekoizpen handiko urteak izan zituen arren, garai hartako katalogoak, askotan, lanen izenburuen zerrenda hutsak ziren, irudi gutxiz hornituak. Prentsari esker, ordea, *El pájaro azul* tokiko aldizkariari esker, hain zuzen ere, eskultura lan gehiago ezagutu ditugu, eta informazio horrek lagundu digu Diezek erabilitako moldea eklektizismoaren barruan sailkatzen, bai gaiei doakienez, bai moldeei doakienez, gure ustez, molde horri bizitza osoan lotu zitzaiolarik. Geroago ikusiko dugunez, artistak gogotik jardun zuen politika arloan Euzko Alderdi Jeltzalean, eta horregatik, erbestealdira joan behar izan zen Gerra Zibilaren ondotik. Horixe izan daiteke beraren lanak Euskal Herritik kanpoko ondorengoen artean sakabanatzeko beste arrazoietako bat.

1 MARRODÁN, Mario Ángel, *La escultura vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1980, 113. or., 118.-119. orr.; *Isaac Díez Ibáñez*: https://dbe.rah.es/biografias/67606/isaac-diez-ibanez [kontsulta 20/02/2024], *Díez Ibáñez, Isaac*: https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/diez-ibanez-isaac/ar-44596/ [kontsulta: 2024/02/20]

participó en numerosas exposiciones y tuvo años de gran producción, los catálogos de la época eran muchas veces meros listados de títulos y escasas imágenes. Sí que conocemos gracias a la prensa, en concreto la revista local *El pájaro azul*, un mayor número de obra escultórica, lo que nos ayuda a encuadrar su estilo, dentro de un eclecticismo tanto en temas como en estilos que creemos mantendrá a lo largo de toda su vida. El periplo vital de este artista, muy activo políticamente dentro del Partido Nacionalista Vasco como se verá más adelante, que le llevó al exilio tras la Guerra Civil, puede ser otra de las razones de la diseminación de su obra dentro de sus descendientes ya fuera del País Vasco.

Formación y primeros años de actividad artística

Isaac Díez Ibáñez nace en Vitoria el 11 de abril de 1891. Era hijo del matrimonio formado por Narciso Díez Ibarrondo, natural de Amezaga (Álava), y de María del Pilar Ibáñez Fernández de Troconiz, natural de Vitoria, y domiciliados en la calle Rioja. Como era habitual fue bautizado en la iglesia de San Vicente al día siguiente de su nacimiento[2].

Recibe su primera formación en el Colegio Preparatorio de 1ª y 2ª Enseñanza de Apolinar Fernández de Landa situado en el nº 14 de la Plaza de la Independencia (actual Plaza de los Fueros)[3] y a partir de 1904 comenzará sus estudios en la Escuela de Artes y Oficios de la capital alavesa. Allí permanecerá hasta 1911, alternando su

2 Archivo Histórico Diocesano de Vitoria (AHDV). Parroquia de San Vicente Mártir. Libro de bautismos 1889-1896, f. 80 r. (https://internet.ahdv-geah.org/paginas/indexacion/n_ficha_bautismos.php?id_bautismo=154461). Agradecemos a Edurne Martín Ibarraran la localización de dicha partida de bautismo.

3 "Velada infantil" en *La Concordia* 21-IV-1897, p. 1

Prestakuntza eta jarduera artistikoaren lehen urteak

Isaac Díez Ibáñez Gasteizen jaio zen 1891ko apirilaren 11n. Errioxa kalean bizi ziren Narciso Díez Ibarrondo (Ametzaga, Araba) eta Maria del Pilar Ibáñez Fernández de Troconiz (Gasteiz) senar-emazteen semea zen. Garai hartan ohikoa zenez, San Bizente elizan bataiatu zuten jaio eta hurrengo egunean.[2]

Apolinar Fernández de Landaren Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxean jaso zuen hasierako heziketa, Independentzia plazako 14. zenbakian (egungo Foruen plazan), eta 1904tik aurrera, Arabako hiriburuko Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen.[3] Han egon zen 1911ra arte, prestakuntza margolaritzari eta eskulturari eskainita; aldi horretan, hainbat sari eta aipamen eskuratu zituen, garai hartako prentsak jaso zuen bezala: 1909an, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren ezohiko saria jaso zuen, 1910ean, sari berezia, eta 1911n sari berezia berriro ere.[4]

Lanbide Eskolan, Ignacio Díaz Olanoren ikaslea izan zen eta Adrian Aldecoa, Obdulio López de Uralde edo Saturnino Ortiz de Urbina artisten adiskidea izan zen. Díaz Olano izan zen Diezen maisu nagusia, eta maitasunez gogoratu zuen beti. Horren harian, Santiago Arcedianok gogorarazi digun bezala, Díaz Olano izan zen modelo biziaren azterketa Diezi irakatsi ziona, eta teknika

2 Gasteizko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa (GEAH). San Bizente Martiriaren parrokia. Bataio liburua 1889-1896, 80. or. er. (https://internet.ahdv-geah.org/paginas/indexacion/n_ficha_bautismos.php?id_bautismo=154461). Edurne Martín Ibarrarani eskerrak eman nahi dizkiogu Diezen bataio agiria aurkitu izanagatik.

3 "Velada infantil": *La Concordia* 1897-06-21, 1. or.

4 "Reparto de premios. En la Escuela de Artes y Oficios": *Heraldo Alavés* 1906-04-09, 1. or.; "Centro de Cultura. Escuela de Artes y Oficios": *Heraldo Alavés* 1909-03-31, 1. or.; "Escuela de Artes y Oficios de Vitoria. Curso de 1909 a 1910": *Heraldo Alavés* 1910-03-29, 1. or.; "Escuela de Artes y Oficios. Relación de las recompensas entregadas a los alumnos": *Heraldo Alavés* 1911-04-03, 1. or.

formación entre la pintura y la escultura, y obteniendo diversos premios y menciones, tal como recoge la prensa del momento: en 1909 recibe el premio extraordinario de la Cámara Oficial de Comercio e Industria de Álava, en 1910 el premio extraordinario, que repite en 1911[4].

En la Escuela, será alumno de Ignacio Díaz Olano y entablará amistad con otros artistas del momento como Adrián de Aldecoa, Obdulio López de Uralde o Saturnino Ortiz de Urbina, con quien compartirá aulas y aprendizaje. Díaz Olano será su maestro fundamental, al que siempre recordará con cariño, y quien, como recuerda Santiago Arcediano, le introdujo en el estudio del modelo en vivo[5], tan importante en su trabajo posterior.

Al poco tiempo de terminar su formación, comienza a acudir a las distintas exposiciones que se celebran en el País Vasco. En ellas, muestra su obra pictórica, aunque con el paso del tiempo la escultura irá ganando peso en su producción. A la Exposición de Artistas Vascos en Tolosa (Gipuzkoa) de 1913 presenta dos obras, *Autorretrato* y *Paisaje de Armentia*. Es un paso muy importante, ya que acuden 41 artistas de renombre de todo el País Vasco: los hermanos Arrue, Elías Salaverria, Ignacio Díaz Olano, Pablo Uranga, Julián de Tellaeche y Valentín y Ramón de Zubiaurre entre otros. Esta circunstancia y el hecho de que fuera organizada por dos artistas como Ángel Cabanas y José de Eizaguirre nos indica que Isaac Díez contaba ya con cierto prestigio[6]. Ese mismo año

4 "Reparto de premios. En la Escuela de Artes y Oficios" en *Heraldo Alavés* 9-IV-1906, p. 1; "Centro de Cultura. Escuela de Artes y Oficios" en *Heraldo Alavés* 31-III-1909, p. 1; "Escuela de Artes y Oficios de Vitoria. Curso de 1909 a 1910" en *Heraldo Alavés* 29-III-1910, p. 1; "Escuela de Artes y Oficios. Relación de las recompensas entregadas a los alumnos" en *Heraldo Alavés* 3-IV-1911, p. 1

5 Esta disciplina fue implantada por Ignacio Díaz Olano en la Escuela durante el curso 1909/10. Vid. ARCEDIANO SALAZAR, Santiago, *Ignacio Díaz Olano. Pasión por la realidad,* Diputación Foral de Álava, Vitoria-Gasteiz, 2017, p. 180

6 *Exposición de Artistas Vascos. Euzko Ertizalien Agerketa. Tolosa 1913,* Imp. Lib. y Encd. de E. López, Tolosa, 1913, s/p.; "La Exposición de Artistas Vascos en Tolosa" en *Euzkadi* 15-VIII-1913, p. 2

horrek berebiziko garrantzia izan zuen Diezen geroko lanetan.[5]

Prestakuntza amaitu eta gutxira, Euskal Herrian egiten ziren erakusketetan parte hartzen hasi zen. Haietan, egindako margolanak erakutsi zituen, baina denboraren poderioz, eskulturek hartu zuten gero eta pisu handiagoa artistaren ekoizpenean. Tolosan (Gipuzkoa), bi lan aurkeztu zituen Euskal Artisten Erakusketan 1913an: *Autorretratua* eta *Armentiako paisaia*. Urrats handia izan zen arabar artistarentzat, Euskal Herri osoko 41 artista ospetsu izan baitziren han: Arrue anaiak, Elias Salaverría, Ignacio Díaz Olano, Pablo Uranga, Julian Tellaeche eta Valentín eta Ramón Zubiaurre, besteak beste. Aurrekoa eta erakusketa bi artista sonatuk, Ángel Cabanasek eta José Eizagirrek, hain zuzen ere, antolatu zutela aintzat hartuta, pentsatzekoa da Isaak

Isaak Díez. *Emakume ijitoa. Gitana*. 1914.
Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava.

5 Jakintza arlo hori Ignacio Diaz Olanok ezarri zuen Eskolan 1909/10 ikasturtean. Ikus ARCEDIANO SALAZAR, Santiago, Ignacio Díaz Olano. *Pasión por la realidad,* Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz*, 2017,* 180. or.

presenta en la Exposición del Centenario de San Sebastián, cuatro obras, entre las que destaca un paisaje y otra titulada, *Sin trabajo y sin pan*[7].

En enero de 1914 realiza dos exposiciones simultaneas en establecimientos comerciales de Vitoria, tal y como era común en ese momento. La primera es en Casa Murguía y de la obra únicamente sabemos lo que nos dice la prensa del momento: *Es una primorosa obra pictórica debido al pincel de Isaac Díez*[8]. La segunda, en la Casa Arraiz, muestra una escena costumbrista, la oración al regreso de la romería, de la que tampoco conservamos imagen[9].

De este mismo año, 1914, es una de los cuadros que forman parte de la colección del Museo de Bellas Artes de Álava, *Gitana*. Es una obra temprana de Isaac Díez, pintada a los 23 años, a los inicios de su trayectoria; probablemente supondría un tanteo por parte del pintor, todavía en búsqueda de un repertorio y un estilo propio. El tema se sitúa en la órbita de la visión identitaria y crítica con la realidad española, propuesta por los escritores de la generación del 98. Gitanas, majas y manolas abundan en la obra de un buen número de artistas de finales del XIX y primer tercio del XX, encontrándolas en la propia colección del museo en autores como López Mezquita, Daniel Zuloaga, Juan de Echevarría o Gustavo de Maeztu, cuya *Bailarina* -en este caso la célebre Tórtola Valencia- y también fechada hacia 1914, comparte con la *Gitana* de Isaac Díez la presencia de una figura femenina escultórica, el colorido de la vestimenta y el aire simbolista de la obra.

7 MARTÍN EL VIZCAINO, "Del Centenario. La exposición de pintura" en *La Constancia* 9-X-1913, p. 1

8 "Películas. Obras de arte" en *La Libertad* 12-I-1914, p. 2; "Notas de sociedad. Obras de arte" en *Heraldo Alavés* 12-I-1914, p. 2

9 "Películas. Un cuadro" en *La Libertad* 26-I-1914, p. 2; "Araba. Un cuadro" en *Euzkadi* 26-I-1914, p. 2

Gustavo de Maeztu. *Emakume dantzaria. Bailarina*. Hacia 1914 aldera. Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava.

Diezek bazuela nolabaiteko ospea ordurako.[6]
Urte horretan bertan, Donostiako Mendeurreneko Erakusketan, lau margolan aurkeztu zituen; horietan, nabarmentzekoak dira paisaia bat eta *Lanik eta ogirik gabe*.[7]

1914ko urtarrilean, bi erakusketa egin zituen aldi berean Gasteizko merkataritza-establezimenduetan, sasoi hartan ohikoa zen bezala. Lehenengoa Murgia Etxean egin zuen eta erakutsitako lanei buruz garaiko prentsak dioena besterik ez dakigu: *Lan piktoriko bikaina da, Isaac Diezen pintzelari esker.*[8] Bigarrenak, Arraiz Etxean egindakoak, ohiturazko eszena bat darakutsa, erromeriaren itzulerako otoitza, baina lan horren irudirik ere ez dugu gorderik.[9]

6 Exposición de Artistas Vascos. *Euzko Ertizalien Agerketa. Tolosa 1913, Imp.* Lib. y Encd. de E. López, Tolosa, 1913, s/p.; "La Exposición de Artistas Vascos en Tolosa": *Euzkadi* 1913-08-15, 2. or.

7 MARTÍN EL VIZCAINO, "Del Centenario. La exposición de pintura": *La Constancia* 1913-10-09, 1. or.

8 "Películas. Obras de arte": *La Libertad* 1914-01-12, 2. or. "Notas de sociedad. Obras de arte": *Heraldo Alavés* 1914-01-12, 2. or.

9 "Películas. Un cuadro": *La Libertad* 1914-01-26, 2. or. "Araba. Un cuadro": *Euzkadi* 1914-01-26, 2. or.

Esta cierta fama y renombre que va consiguiendo hace que en abril de 1914 Isaac solicite una ayuda económica al ayuntamiento vitoriano. En la instancia que presenta se muestra la precaria situación que tiene el artista: *...deseando continuar la ya emprendida carrera artística, careciendo siquiera de una mano amiga que de un pequeño impulso a mi trabajo... mi trabajo, como obrero que soy, he de invertirlo en el sustento y a costa de unos pequeños sacrificios logro salir adelante con mis estudios*[10]. Por ello, solicita una pensión de 250 pesetas que le permita realizar un cuadro y presentarlo a la Exposición Nacional de Bellas Artes. Y termina con un cierto reproche: *En Vitoria hace tiempo que no sale un pensionado camino de las grandes escuelas. Es quizá que ni el Ayuntamiento ni la Diputación tienen suficientes recursos para poder seguir el ejemplo de otras provincias? No lo sé, ni es ahora mi propósito pedir más que aquello que la pura necesidad me obliga y no dudo que nuestros dignos representantes del municipio se lo concederán a este umilde [sic] hijo del pueblo*[11]

El Ayuntamiento resuelve a su favor en mayo de ese mismo año y, aunque Isaac no puede acudir a la Exposición de 1914 ya que se suspendió por la Primera Guerra Mundial, lo cierto es que parece que o bien no envío su obra o no fue admitido en la de 1915 celebrada en mayo. Es curioso, porque a esta exposición además del maestro Ignacio Díaz Olano que concurrió con su obra *Siesta* (en la actualidad en la colección del Museo de Bellas Artes de Álava), acudieron un importante conjunto de pintores alaveses coetáneos de Díez, como Adrián de Aldecoa, Teodoro Dublang,

10 Archivo Municipal Vitoria-Gasteiz (AMVG) 38-9-36. *Se concede a don Isaac Díez Ibáñez una subvención de 250 pesetas para que pueda concurrir a la Exposición Nacional de Bellas Artes que se celebrará en Madrid.*

11 AMVG 38-9-36, op. cit.

Urte horretakoa da, 1914koa, hain zuzen, Arabako Arte Ederren Museoaren bildumako margolanetako bat: *Emakume ijitoa*. Isaak Diezen margolan goiztiarra da, 23 urterekin margotua, hots, artistaren ibilbidearen hasieran; ziur asko, margolariaren saiakera bat izan zen, artean errepertorio eta molde propioaren bila zebilela. 98ko belaunaldiko idazleek proposatutako ikuspegi identitarioaren eta Espainiako errealitatearekiko kritikoaren esparrukotzat jo behar dugu gaia. Emakume ijitoak, majak eta manolak ugari dira XIX. mende amaierako eta XX. mendearen lehen hereneko artista askoren lanetan; hala, museoaren bilduman bertan aurki ditzakegu zenbait egileren lanetan: López Mezquita, Daniel Zuloaga, Juan de Echevarría edo Gustavo de Maeztu. Azkenaren *Emakume dantzaria* –kasu honetan, Tortola Valencia ospetsua–, 1914. urtekoak, eta Isaak Diezen *Emakume ijitoa* margolanak hainbat alderdi partekatzen dituzte: emakume baten irudi eskultorikoa, janzkeraren kolorea eta obraren aire sinbolista.

Pixkanaka-pixkanaka eskuratu zuen nolabaiteko ospe eta izenaren ondorioz, 1914ko apirilean, Isaakek dirulaguntza eskatu zion Gasteizko Udalari. Diezek aurkeztutako eskabidean, artistaren uneko egoera mehea geratu zen agerian: *... dagoeneko hasita daukadan ibilbide artistikoari ekin nahi diot, baina ez daukat nire lanari bultzada txikirik ematen dion lagunik... Nire lana, langile naizen aldetik, mantenuan inbertitu behar dut eta, sakrifizio txiki batzuk eginda, nekez lortzen ari naiz ikasketekin aurrera egitea.*[10] Horregatik, 250 pezetako pentsioa eskatzen dut, margolan bat egin eta Arte Ederren Erakusketa Nazionalean aurkezteko. Eta eskabidearen amaieran, nolabaiteko gaitzespena egotzi zion udalari: *Gasteizen, aspaldi ez da pentsiodunik atera eskola handietarako bidean. Agian, Udalak eta Aldundiak ez dute nahikoa baliabiderik beste probintzia batzuen ereduari jarraitu*

10 Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa (VGUA), 38-9-36 *Isaac Diez Ibañez jaunari 250 pezetako dirulaguntza eman zaio Madrilen egingo den Arte Ederren Erakusketa Nazionalean parte hartu ahal izateko.*

Ignacio Díaz Olano. *Biaoa. La siesta.* 1915.
Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava.

Juan Bautista Ibarrondo o Mauro Ortiz de Urbina[12]. De cualquier manera, nuestro artista no volvió a presentarse a las Exposiciones Nacionales de Bellas Artes.

Sin embargo, la obra objeto de la subvención, *Bajo el yugo*, fue expuesta en el establecimiento de Clemente Arraiz en 1915. La prensa del momento la describe así: *...un hermoso cuadro, de afortunado asunto, buena composición, bien dibujado y mejor trazado. Es un todo, un estudio concienzudo...Fórmalo un grupo de esclavos de la época griega, destacándose en él por lo bien acabada y realismo de su expresión, la figura a quien el látigo despiadado arranca el grito de su dolor.*[13]

El artículo continúa con la descripción de su estudio en la calle Cuchillería, enfrente del palacio de Bendaña y con una defensa a ultranza de la vocación artística de "Isaak", como

12 *Catálogo oficial de la Exposición Nacional de Bellas Artes 1915,* Artes Gráficas Mateu, Madrid, 1915; PANTORBA, Bernardino de, *Historia y crítica de las Exposiciones Nacionales de Bellas Artes celebradas en España,* Edición de Jesús García-Rama, Madrid, 1980

13 IZAR, "De arte" en *La Libertad* 25-02-1915, p. 1

ahal izateko? Ez dakit, eta nire oraingo asmoa ez da behar gorriak estututa behar dudan laguntza baino gehiago eskatzea; ez dut zalantzarik udalerriko gure ordezkari duinek laguntza emango diotena herriko seme apal honi[11].

Urte horretako maiatzean, Gasteizko Udalak aldeko ebazpena eman zuen, eta Isaak 1914ko Erakusketara ezin joanik geratu bazen ere, erakusketa bertan behera geratu baitzen Lehen Mundu Gerraren ondorioz, badirudi ez zuela lanik bidali edo artista ez zutela onartu 1915eko maiatzean egindako erakusketan. Kontu bitxia da, Ignacio Díaz Olano maisuak *Biaoa* lana aurkeztu baitzuen esandako erakusketan (gaur egun, Arabako Arte Ederren Museoaren bilduman dago), eta, gainera, Diezen garaikide ziren arabar margolari ugari joan baitzen hara, hala nola Adrian Aldecoa, Teodoro Dublang, Juan Bautista Ibarrondo edo Mauro Ortiz de Urbina.[12] Nolanahi ere den, gure artista ez zen berriro Arte Ederretako Erakusketa Nazionaletan aurkeztu.

Guztiaz ere, dirulaguntza jaso zuen lana, *Uztarripean*, Clemente Arraizen etxean erakutsi zen 1915ean. Garaiko prentsak honela deskribatu zuen: *... margolan ederra, gai dontsua darabilena, konposizio onekoa, ondo marraztua eta hobeto margotua. Osotasuna dakar, azterketa arduratsua... Greziako garaiko esklaboen talde batek osatzen du lana, eta elementu guztietan nabarmentzekoa da, bere adierazpenaren errealismoagatik eta akabera bikainagatik, zartailu gupidagabeak oinazearen garrasia aterarazten dion irudiarena.*[13]

Aurrekoaz gain, artistaren estudioaren deskribapena dakar, Aiztogile kalean, Bendaña jauregiaren parean, eta "Isaak-en" bokazio artistikoaren defentsa sutsua darabil, bere lan batzuetan

11 VGUA, 38-9-36. op. cit.

12 *Catálogo oficial de la Exposición Nacional de Bellas Artes 1915,* Artes Gráficas Mateu, Madril, 1915; PANTORBA, Bernardino de, *Historia y crítica de las Exposiciones Nacionales de Bellas Artes celebradas en España,* Ed.: Jesús García-Rama, Madril, 1980

13 IZAR, "De arte": *La Libertad* 1915-02-25, 1. or.



Aiztogile kalea eta Bendaña jauregia. Calle Cuchillería y Palacio de Bendaña. 1910 baino lehenagokoa. Anonimoa. Anónimo. Anterior a 1910. GUA/AMVG 05-B-027

enseguida firmará alguna de sus obras: *Convencime una vez más de que Díez es artista por inclinación, por vocación decidida, por su temperamento y hasta su configuración física le denuncia como tal. De estatura elevada, huesoso, estrecho y elevada faz, aplastado cráneo. Parece un modelo de El Greco. Luego su mirada, penetrante, vigorosa, aire sobrio y majestuoso*[14].

En agradecimiento a esta ayuda económica, el artista se ofrece a realizar el retrato de un personaje ilustre de la vida vitoriana, bien del General Álava o del arquitecto Justo Antonio de Olaguibel. El ayuntamiento decide que sea este último el elegido ya que *el primero* (el General Álava*) tendrá un retrato con el monumento a la Batalla de Vitoria como figura principal del mismo*[15].

Isaac Díez entrega el retrato a la corporación vitoriana en diciembre de 1915, tras restablecerse de una grave enfermedad que lo tuvo en cama el verano de ese año y cuyo proceso fue fielmente recogida por la prensa[16]. La obra, que en la actualidad forma parte de la colección del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, es un retrato

14 IZAR, op. cit. El estudio se describe de la siguiente manera: *"Esparcidos por los rincones tuve ocasión de contemplar tallas, esculturas religiosas y profanas en barro, madera y mármol; varios lienzos, paisajes, desnudos, bustos, autorretrato del autor, etc."*

15 AMVG 34-32-67. *Don Isaac Díez ofrece ejecutar el retrato de un vitoriano insigne como agradecimiento a la subvención que le concedió la corporación municipal*

16 "Películas. Enfermos" en *La Libertad* 3-VIII-1915, p. 2; "Araba. Enfermo" en *Euzkadi* 4-VIII-1915, p. 2, "Notas de sociedad. Los enfermos" en Heraldo Alavés 11-IX-1915, p. 2

sinatzen zuen ildoan: *Sinetsita nago berriro ere Díez zaletasunez, bokazio irmoz, kemenez eta gorpuzkeraz ere artista dela. Garaiera handikoa da, hezurtsua, estua eta aurpegi luzekoa, garezur zapalekoa. Grekoa-ren modeloa dirudi. Eta haren begirada, sarkorra, indartsua, soila eta handientsua.*[14]

Laguntza ekonomikoaren esker onez, artistak bere burua eskaini zuen Gasteizko pertsona ospetsuren baten erretratua egiteko, zela Alava jeneralarena, zela Justo Antonio Olaguibel arkitektoarena. Udalak azkenaren aldeko hautua egin zuen; izan ere, lehenegoak (Alava jeneralak) erretratu bat izan behar baitzuen, Gasteizko gudari buruzko monumentuan irudi nagusitzat agertuta-[15]

Isaak Diezek 1915eko abenduan eman zion erretratua Gasteizko korporazioari, urte hartako uda osoan ohean egotera behartu zuen gaixotasun larritik sendatu eta gero, prentsak ausarki jaso zuen artistaren gaixoaldiaren berri[16]. Margolan hori Gasteizko Udalaren bildumakoa da gaur egun, eta arkitektoaren gorputz erdiko erretratua da, non artistak lehendik zeuden grabatuei begiratu zien arkitektoaren gorpuzkera islatzeko. Arkitektoak plano batzuk ditu esku batean, liburu batzuetan bermatuta dagoela. Beste eskua eskularru batez jantzita dago, eta gortina gorri bat zabaltzan ari da, atzean arkitektoaren lanik esanguratsuena, Arkupea, ikusten dela[17]. Erretratu klasikoa da, ospea erakusten duena.

14 IZAR, op. cit. Estudioa honela deskribatu zuten: *"Esparcidos por los rincones tuve ocasión de contemplar tallas, esculturas religiosas y profanas en barro, madera y mármol; varios lienzos, paisajes, desnudos, bustos, autorretrato del autor, etc."*

15 VGUA, 34 - 32 - 67.

16 "Películas. Enfermos": *La Libertad* 1915-08-03, 2. or.; "Araba. Enfermo": *Euzkadi* 1915-08-04, 2. or. "Notas de sociedad. Los enfermos": *Heraldo Alavés* 1915-09-11, 2. or.

17 *Fondos de arte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (1800-1959)*, Vitoria-Gasteizko Udalaren Kultura Saila, Vitoria-Gasteiz, 2005, 114. or.

de medio cuerpo del arquitecto en la que el artista se ha inspirado en los grabados existentes para reflejar su fisonomía. Aparece sujetando unos planos con una mano y apoyado en varios libros. Con la otra, enfundada en un guante, aparta una cortina roja que permite contemplar su obra más emblemática, los Arquillos[17]. Es un retrato clásico, de status.

En agosto de 1916 se celebra un importante acontecimiento, el III Concurso Obrero y Exposición Artística, Industrial, Agrícola y de Enseñanza, de gran impacto en Vitoria ya que el entonces presidente del gobierno, Eduardo Dato estuvo muy vinculado en su organización. De manera paralela y para revalorizar el concurso se organizó una Exposición de Pintura Alavesa con motivo del 50 aniversario del Real Ateneo de Vitoria. Ambas actividades se celebraron en el Colegio de los Corazonistas y tuvieron importante repercusión pública ya que el rey Alfonso XIII acudió a su clausura.

A dicha exposición se presentaron nombres consagrados de la pintura alavesa, y también jóvenes figuras. Díez presentó tres obras en la sección de concurso, *Un aldeano*, *Campo de Arana* y *Nubes*[18], aunque por la documentación gráfica del Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz, hemos visto que también exhibió su obra *Gitana*, anteriormente mencionada[19]. Participó así mismo, en la sección de escultura y obtuvo una medalla de cobre[20].

Julio Ochoa, crítico de arte del periódico vitoriano *La Libertad*, le dedicó un interesante artículo en la serie que hizo sobre los distintos artistas. Su crítica es positiva, *...como pintor, empuja, embelesa, anonadada con la seguridad de sus pinceles y dice*

17 *Fondos de arte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (1800-1959),* Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Vitoria-Gasteiz, 2005, p. 114

18 *Exposición de Pintura Alavesa,* Real Ateneo de Vitoria, Vitoria, 1916

19 AMVG. GUI-III-067.15. *Concurso Obrero 1916.* Autor, E. Guinea

20 "El concurso obrero. Los premiados" en *La Libertad* 22-VIII-1916, p. 1

Langile Lehiaketako sarrerako arkua eta *Langile Lehiaketako erakusketa aretoak*
Arco de entrada y salas de exposición del Concurso Obrero.
Enrique Guinea. 1916. GUA/AMVG 06-GUI-III-067_04 y 15.

1916ko abuztuan, gertakari garrantzitsua izan zen, III. Langile Lehiaketa eta Arte, Industria, Nekazaritza eta Irakaskuntza Erakusketa, oso eragin handikoa Gasteizen, garai hartan gobernuko presidentea zen Eduardo Dato oso lotuta egon baitzen erakusketaren antolaketarekin. Aldi berean, lehiaketaren balioa areagotzeko, Arabako Pintura Erakusketa antolatu zen, Gasteizko Errege Ateneoaren 50. urteurrena zela eta. Bi jarduera horiek Korazonisten ikastetxean egin ziren, eta bi-biek oihartzun publiko handia izan zuten, Alfontso XIII.a erregeak amaiera ekitaldian parte hartu zuela eta.

Erakusketa horretan, arabar margolari ospetsuek parte hartu zuten, bai eta margolari gazteek ere. Diezek hiru lan aurkeztu zituen lehiaketa sailean: *Baserritar bat*, *Aranako zelaia* eta *Hodeiak*[18]. Dena dela, Gasteizko Udal Artxiboan gorde den dokumentazio grafikoari esker, lehen aipatu dugun *Emakume*

18 *Exposición de Pintura Alavesa*, Gasteizko Errege Ateneoa, Gasteiz, 1916

valientemente con sus cuadros llenos de colorido, detalle y asunto que no lejano el día en que vislumbre horizontes dichosos de su triunfo[21]. No obstante, también le recrimina la falta de definición de su estilo (*muchos artistas, muchas escuelas*) y el hecho de ser un artista poco extrovertido y encerrado en su torre de marfil (*si no fuese tan modesto y tan huraño*).

Un artista pluridisciplinar

Su actividad se centra hasta ahora en la participación en distintas exposiciones, donde presenta obra pictórica, pero su formación en la Escuela de Artes y Oficios también como escultor, le anima en 1917 a ofrecerse al ayuntamiento vitoriano para encargarse de la construcción de la comparsa de gigantes y cabezudos[22]. Como recoge José María Sedano en su *Vitorianos de cartón. Gigantes, cabezudos y Gargantúa. Historia de una comparsa*[23], su presencia estaba documentada en nuestra ciudad desde el siglo XVII y vinculada a celebraciones religiosas. Pero a mediados del siglo XIX, Vitoria carecía de estas figuras y se inician las peticiones al ayuntamiento para su construcción. No se logrará hasta 1917 y gracias al decidido apoyo de intelectuales alaveses como Odón y Ángel de Apraiz o al periodista local Ángel Eguileta que promoverán la iniciativa desde 1916 a través de la prensa local[24].

21 OCHOA, Julio, "Visitando el concurso. El Real Ateneo" en *La Libertad* 18-VIII-1916, p. 1

22 Previamente al encargo se habían realizado diversas actividades populares para incentivar la suscripción popular. Por ejemplo, en abril de 1917 se celebra una novillada popular. Para animar la asistencia se realiza un pasacalle con dulzaineros e Isaac Díez cede un cabezudo para la comparsa. "Plaza de toros" en *La Libertad* 7-IV-1917, p. 1

23 SEDANO LAÑO, José María, *Vitorianos de cartón. Gigantes, cabezudos y Gargantúa. Historia de una comparsa,* Diputación Foral de Álava, Vitoria-Gasteiz, 1995

24 Recogen sus artículos la revista *Ateneo* y los diarios locales *La Libertad* y *Heraldo Alavés*

ijitoa margolana ere erakutsi zuela egiaztatu dugu[19]. Eskultura sailean ere parte hartu zuen eta kobrezko domina bat poltsikoratu zuen[20].

Julio Ochoa Gasteizko *La Libertad* egunkariko arte kritikariak, artikulu jakingarria eskaini zion artistei buruz egindako sailean. Kazetariaren kritika aldekoa izan zen: ... *margolari gisa, hunkitu egiten du, liluratu egiten du, aho zabalik uzten gaitu pintzelen segurtasunak, eta ausardiaz esaten du, haren margolanak kolorez, xehetasunez eta gaiez beteak daudela, bere garaipenaren etorkizun zoriontsua datorren eguna ez dagoela oso urrun*[21]. Hala eta guztiz ere, artistaren moldearen definizio falta ere aurpegiratu zion (*artista asko, eskola asko*) bai eta bere marfilezko dorrean itxita bizi zen artista kanporakoia ez izatea ere (*hain apala eta zaputza izango ez balitz*).

Diziplina anitzeko artista

Ordura arte, hainbat erakusketatan parte harturik zegoen, eta margolanak aurkeztuta, baina Arte eta Lanbide Eskolan eskultore gisa ere trebaturik zegoela, 1917an, bere burua eskaini zion Gasteizko Udalari erraldoi eta buruhandien konpartsa eraikitzeko[22]. José María Sedanok *Vitorianos de cartón. Gigantes, cabezudos y Gargantúa. Historia de una comparsa*[23] lanean jaso zuen bezala, halakoen historia XVII. mendetik dago dokumentatua

19 VGUA. GUI-III-067. 15. *Concurso Obrero 1916*. Egilea: E. Guinea

20 "El concurso obrero. Los premiados": *La Libertad* 1916-08-22, 1. or.

21 OCHOA, Julio, "Visitando el concurso. El Real Ateneo": *La Libertad* 1916-08-18, 1. or.

22 Enkargua egin aurretik, herritarren harpidetza sustatzeko hainbat jarduera egin ziren. Adibidez, 1917ko apirilean, sokamuturra egin zen. Jendea gogatzeko, kalejira egin zen dultzaineroekin, eta Isaac Diezek buruhandi bat laga zion konpartsari. "Plaza de toros": *La Libertad* 1917-04-07, 1. or.

23 SEDANO LAÑO, José María, *Vitorianos de cartón. Gigantes, cabezudos y Gargantúa. Historia de una comparsa*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 1995

Será en concreto Ángel de Apraiz, catedrático de Literatura e Historia del Arte bajo el seudónimo *Arritoin de Aranceta,* quien proponga los rasgos, nombres y características a estas figuras festivas asociadas ahora a las fiestas de la Virgen Blanca.[25] Se recurre a distintas iniciativas para sufragar los gastos, suscripción popular, festivales taurinos, funciones teatrales, etc. y la Comisión de Festejos del Ayuntamiento inicia las gestiones con distintas empresas y artistas especializados de Madrid, Barcelona o Bilbao.

Isaak Díez. *Aramaioko erraldoietarako zirriborroak*. Bocetos para los gigantes de Aramaio. Enrique Guinea. Hacia 1916 aldera. GUA/AMVG GUI-VII-107_01

Erraldoien eta buruhandien konpartsa. Comparsa de gigantes y cabezudos. Enrique Guinea. Hacia 1917 aldera. GUA/AMVG GUI-III-080_08

Es entonces cuando el artista local Isaac Díez remite una instancia al Ayuntamiento el 23 de febrero de 1917, ofreciéndose a realizar la comparsa de cuatro gigantes y cuatro cabezudos cuyas cabezas se estudiarían del natural e irían vestidos con *telas de Vergara*, todo por un precio de ejecución de 2.300 pts. o 2.600, en caso de

25 ARRITOIN DE ARANCETA: "A propósito de los Gigantones y Nanetes", en *Revista Ateneo,* 4ª época, año IV, nº 39, diciembre 1916, p. 11

gure hirian, betiere ospakizun erlijiosoei lotuta. Alabaina, XIX. mendearen erdialdean, Gasteizek ez zuen horrelako irudirik, eta hainbat eskaera jaso zituen udalak eraikitzeko erabakia har zezala. Erabakia 1917an etorri zen, besteak beste, Arabako Odón eta Ángel Apraiz intelektualen edo tokiko kazetari Ángel Egiletaren laguntza sutsuari esker, horiek guztiek tokiko prentsa erabiliz sustatu baitzuten ekimena 1916tik aurrera[24]. Ángel Apraizek, Literaturaren eta Artearen Historiako katedradunak, *Arritoin de Aranceta* ezizena baliatuz, proposatu zituen egun Andre Maria Zuriaren jaiei lotuta ageri zaizkigun jai-irudi horien ezaugarriak, izenak eta berezitasunak.[25] Hainbat bide jorratu ziren gastuak ordaintzeko, hala nola herri harpidetzak, zezenketak, antzerki-emanaldiak eta abar, eta, azkenean, Gasteizko Udaleko Jai Batzordeak kudeaketa lanak hazi zituen Madrilgo, Bartzelonako edo Bilboko enpresa eta artista espezializatu batzuekin.

Orduan, Isaak Díez herriko artistak eskabidea bidali zuen udaletxera 1917ko otsailaren 23an; bertan, lau erraldoik eta lau buruhandik osaturiko konpartsa egiteko eskaintza egin zuen. Hala, horien guztien buruak jatorrizkoetan oinarriturik ikertuko ziren eta *Bergarako oihalez* jantziko ziren, hori guztia 2.300 pezetako zenbatekoaren truke, edo 2.600 pezetako prezioaren truke, Gargantua ere enkargatuz gero[26]. Jakingarria da azpimarratzea artistak berariaz adierazi zuela Ignacio Díaz Olano gasteiztar margolari ospetsuak, Arte Eskolan irakasle izan zuenak eta hirian ospe handia zuenak, laguntza handia eta aholku bikainak eman zizkiola proposamena egiterakoan. Geroago, Gasteizko Udalaren Jai Batzordeak enkargua banatzea erabaki zuen ondokoen artean: Madrilgo F. Losada enpresa *(Arabako mendialdeko bikotea deritzon erraldoi parea*) eta

24 Artikuluak agertu ziren *Ateneo* aldizkarian eta tokiko aldizkarietan: *La Libertad* eta *Heraldo Alavés*

25 ARRITOIN DE ARANCETA: "A propósito de los Gigantones y Nanetes": *Ateneo*, 4. aroa, IV. urtea, 39. zk., 1916ko abendua, 11. or.

26 VGUA, 21/9 /3: *Jaietako programak egiteari eta erraldoiak erosteari buruz*

encargar también el Gargantúa[26]. Es interesante resaltar cómo el artista, alude al apoyo y orientación que ha recibido a la hora de elaborar la propuesta, de Ignacio Díaz Olano, el reputado pintor vitoriano, del que había sido alumno en la Escuela de Artes y que contaba con un gran prestigio en la ciudad. La Comisión de Festejos del ayuntamiento decidirá más adelante repartir el encargo entre la empresa madrileña F. Losada (los dos gigantes *pareja de la montaña alavesa*) y el vitoriano Isaac Díez, que realizará los gigantes *pareja de Aramaiona* él con paraguas, pipa, blusa y txapela y con cesta de mimbre ella. No queda bien documentado sin embargo el encargo de los cabezudos, pero las dimensiones de las figuras, similares dos a dos, (*Escachapobres* y *Celedón* 1,35 y 1,30 m. y *Pintor de Vitoria* y *Cachán* 0,80 y 0,83 m.), apuntan a que fue también repartido, aunque sin que sepamos hasta la fecha qué figuras realizaron uno y otro.

Respecto al impacto en la ciudad tras su presentación el 3 de agosto, víspera del inicio de las Fiestas de la Blanca de 1917, trasladamos la buena acogida de las figuras realizadas por nuestro artista. Según el *Heraldo Alavés, la pareja construida por Isaac Díez es de superioridad artística enorme sobre los construidos en Madrid. Los hechos aquí tienen verdadero sabor.* Así mismo, comenta Ángel de Apraiz bajo su pseudónimo ... *la mitad de ellos hechos en Vitoria (dos gigantones y dos nanetes), reúnen las cualidades de carácter y de expresión que yo de antemano esperaba de los artistas vitorianos, los cuales y especialmente Isaac Díez merecen por ello el parabién*[27]. Una comisión de donantes, en nombre de los suscriptores, hace entrega de la comparsa, un regalo que hace el pueblo de Vitoria a su Ayuntamiento.

26 AMVG 21/9/3: *Sobre confección de programas de fiestas y adquisición de gigantones*

27 ARRITOIN DE ARANCETA, op. cit., pp. 11-12

Gasteizko Isaak Díez. Gasteiztarrak *Aramaioko bikotea* deritzon erraldoi parea egin zuen, gizonezkoak euritakoa, pipa, blusa eta txapelaz horniturik eta emakumezkoak zumezko saski batez horniturik. Beste alde batetik, buruhandien enkargua ez da ondo dokumentaturik geratu, baina irudien neurriek, bina-binaka antzekoak direla (*Escachapobres* eta *Zeledon* 1,35 eta 1,30 metrokoak, hurrenez hurren, eta *Gasteizko margolaria* eta *Cachán* 0,80 eta 0,83 metrokoak, hurrenez hurren), adierazten digute lan hori ere banatu zela, baina gaurdaino ez dakigu zein irudi bikote egin zuen batak eta zein besteak.

Abuztuaren 3an, 1917ko Andre Maria Zuriaren Jaiak hasi zireneko egunaren bezperan, buruhandiak eta erraldoiak aurkeztu eta geroko oihartzunari dagokionez, adierazi behar dugu gure artistak egindako irudiek harrera bikaina izan zutela. *Heraldo Alavésen* arabera, *Isaac Diezek egindako bikoteak nagusitasun artistiko handia dauka Madrilen eraikitakoen aldean. Hemen egindakoek benetako zaporea dute.* Era berean, Ángel Apraizek, ezizenaz sinaturik, hauxe esan zuen: *... erdiak Gasteizen eginak dira –bi erraldoi eta bi nanete–, eta nik aldez aurretik gasteiztar artistengandik espero nituen izaera eta adierazkortasuna biltzen dituzte; artista horiek, eta bereziki Isaac Diezek, gure zorion-hitzak entzutea merezi dute*[27]. Harpidedunen izenean, emaileen batzorde batek eman zion konpartsa Gasteizko Udalari, herritarrek udalari egindako opari gisa.

Ikuspegi pertsonaletik ere urte hori oso ona izan zen Isaakentzat, maiatzaren 19an ezkondu baitzen San Pedro elizan María Jiménez Pérez gasteiztarrarekin.

Diezen biografian aipatu beharreko beste gertera jakingarri bat, artistaren interes anitzen erakusgarri, zineman egindako sarraldia izan zen. 1918. urteaz ari gara, *Josetxo* filma zuzendu zuelarik, gaur egunera arte, Euskal Herrian filmatu den fikziozko lehen

27 ARRITOIN DE ARANCETA, op. cit., 11-12 orr.

Este es también un buen año en el plano personal para Isaac ya que el 19 de mayo contrae matrimonio en la iglesia de San Pedro con la vitoriana María Jiménez Pérez.

Otro hecho interesante en su biografía y una muestra de la diversidad de sus intereses, es su incursión en la aventura cinematográfica. Estamos hablando de 1918, cuando comienza bajo su dirección la película *Josetxo*, considerada hasta la actualidad como la primera película de ficción rodada en el País Vasco —aunque lamentablemente perdida—. Se contaba en Vitoria con la experiencia pionera de los fotógrafos Moreno y Salinas, autores de las tres primeras películas documentales que se rodaron y exhibieron en la ciudad —y de las primeras en el País Vasco— entre 1898 y 1899: *Ejercicios gimnásticos por los alumnos de la academia del Señor Baraibar (Vitoria)*, *Salida de Misa de la iglesia de San Miguel* y *Calle de la Florida*[28]. Siguiendo su estela, unos años más tarde, Díez se embarca —con su equipo de colaboradores—, en este proyecto meritorio en muchos aspectos, por ser un nuevo medio, todavía no valorado por todos, por la escasez de las producciones vascas en ese momento y por dar el salto del documental a la ficción en la película *Josetxo*, rodada en territorio alavés y cuya temática dice ya mucho de sus intereses en torno a la cultura, tradiciones y folklore de Euskal Herria.

La firma productora era Gráfica Española y Díez fue, además de actor principal, director y guionista. Junto a la protagonista, Asunción Muñoz, consiguió movilizar a otros amigos artistas como Saturnino Ortiz de Urbina y Obdulio López de Uralde[29]. El rodaje se realizó en Vitoria, *...como lugares de escena han sido elegidos rincones típicos de nuestra ciudad, apareciendo también en la película la basílica de Armentia y la campa en la que se halla*

28 PABLO, Santiago de, "Los orígenes del cine en el País Vasco y Navarra (1895-1910). Un estado de la cuestión" en *Artigrama,* nº 16, 2001, pp. 103-118

29 UNSAIN, José María, *El cine y los vascos,* Eusko-Ikaskuntza, Donostia-San Sebastián,1985, p. 87

Augustin Zulueta jauregiko jantokia, non Josetxo filmaren eszena batzuk filmatu baitziren. Comedor del Palacio Augustin Zulueta donde se rodaron algunas escenas de la película *Josetxo*. Hacia 1940 aldera.
Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava.

.

filma –tamalez, galdutakoa–. Gasteizen, Moreno eta Salinas argazkilarien esperientzia aitzindaria izan zen, horiek izan baitziren hirian filmatu eta jendaurrean eman ziren lehen —eta Euskal Herriko lehen— hiru film dokumentalen egileak, 1898 eta 1899 urteetan: *Baraibar Jaunaren Gasteizko akademiako ikasleen gimnastika-ariketak, San Migel elizako meza-irteera* eta *Florida kalea*[28]. Argazkilarien uberan, urte batzuk geroago, Diezek —bere kolaboratzaileen taldearekin batera— arlo askotan merezimenduzkoa den proiektu hohorri ekin zion, artean jende oroko balioesten ez zuen hedabide berria zelako, garai hartan, euskal ekoizpenak urriak zirelako eta dokumentaletik fikziora jauzi egin zuelako Arabako lurraldean filmatutako *Josetxo* filmean;

28 PABLO, Santiago de, "Los orígenes del cine en el País Vasco y Navarra (1895-1910). Un estado de la cuestión: *Artigrama*, 16. zk., 2001, 103-118 orr.

erigida, en la cual se han impresionado varias escenas de una romería vasca. De Vitoria aparecieron también lugares conocidos como el Café Universal, en cuyo interior se desarrolla una de las escenas, la calle de la Estación, el antiguo palacio de Bendaña, la calle Nueva Fuera, el estudio de don Ignacio Díaz, el palacio de don Ricardo Augustin (jardín e interior), acaso el Vitoria Club y otros[30].

Por desgracia, no se pudo concluir por falta de financiación y no se ha conservado nada de lo filmado[31].

De Isaac a Isaak. Actividad política y artística

Aparece ya aquí una de las vertientes fundamentales de la vida de nuestro artista, como es su activa vida política, vinculada siempre al Partido Nacionalista Vasco. En ese mismo año, 1918, se había creado Juventud Vasca de Gasteiz, presidida por Isaak Díez y con Luis de Eleizalde como presidente honorario[32]. Durante estos años, tuvo una importante actividad, dedicado a la difusión del sentimiento nacionalista no solo en Vitoria sino en todo el territorio alavés. Además de los mítines[33], hay que mencionar la publicación del periódico *Arabarra* (en su segunda etapa) en la que Isaak, junto con otros colaboradores, escribe de manera habitual.

30 "Película vasca" en *Heraldo Alavés* 14-VIII-1918, p. 1

31 LARRAÑAGA, Koldo, "Primer film de ficción realizado en Euskalherria", *Ikusgaiak* 4, 2000, pp. 29-40, p. 32

32 PABLO, Santiago de, *En tierra de nadie. Los nacionalistas vascos en Álava,* Ikusager Ediciones, Vitoria-Gasteiz, 2008, pp. 45-46. El objetivo era difundir la historia, leyes e idioma del País Vasco

33 "Araba. Las elecciones de Amurrio. Mitines de propaganda" en *Euzkadi,* 7-III-1919, p. 3; "Araba. El mitin de Legutiano" en *Euzkadi* 4-VII-1920, p. 3, "Crónica de Vitoria. Los nacionalistas" en *Heraldo Alavés* 25-X-1920, p. 2

lan horren gaiak argiro erakutsi zituen artistaren kezkak Euskal Herriko kulturaren, tradizioen eta folklorearen inguruan.

Gráfica Española izan zen ekoiztetxea, eta Díez, aktore nagusi izateaz gain, zuzendari eta gidoilari ere izan zen. Asunción Muñoz aktore nagusiarekin batera, beste lagun artista batzuk sartu zituen tartean, hala nola Saturnino Ortiz de Urbina eta Obdulio López de Uralde[29]. Filmaketa Gasteizen egin zen: *... gure hiriko ohiko txoko batzuk aukeratu dira eszenetan agertzeko, eta Armentiako basilika eta hura dagoen zelaia ere ageri dira filmean, euskal erromeria bateko hainbat hartualdi erakutsita. Gasteizko beste leku ezagun batzuk ere agertu ziren, hala nola Universal kafetegia, zeinaren barruan eszena bat gertatzen den, Geltoki kalea, Bendaña jauregi zaharra, Kanpokale Berria kalea, Ignacio Diazen estudioa, Ricardo Augustinen jauregia (lorategia eta barrualdea), ustez, Vitoria Club eta beste batzuk)*[30].

Zoritxarrez, filma ezin izan zen amaitu finantziazio faltagatik, eta ez da grabatutakotik ezer gorde[31].

Isaacetik Isaakera. Jarduera politikoa eta artistikoa

Sasoi hartan, gure artistaren bizitzaren funtsezko alderdietako bat azaleratu zen, hots, bere bizitza politiko gogozkoa, beti Euzko Alderdi Jeltzaleari lotua. Urte horretan bertan, 1918an, Gasteizko Euzko Gaztedi sortu zen, Isaak Díez buru eta Luis Eleizalde

29 UNSAIN, José María, *El cine y los vascos*, Eusko-Ikaskuntza, Donostia-San Sebastián,1985, 87. or.

30 "Película vasca": *Heraldo Alavés* 1918-08-14, 1. or.

31 LARRAÑAGA, Koldo, "Primer film de ficción realizado en Euskalherria", *Ikusgaiak* 4, 2000, 29.-40. orr. 32. or.

66 MUR PASTOR, Pilar, op. cit., 161. or.

Campezo, Oion. En algunas ocasiones estará acompañado de sus hijos que formaban parte de la organización *Euzko-Gaztedi*[69].

Este impulso del sentimiento nacionalista se dará, también, por medio de otras actividades culturales como es la música y el teatro, especialmente a través del grupo *Ostadarra,* donde Díez tendrá un papel importante escribiendo algunos de los textos[70] de las obras teatrales.

Por otra parte, continúa vinculado a la docencia, tanto en la Escuela de Artes y Oficios como en las clases particulares. Así, acompañado de sus alumnos realiza una lápida en homenaje al capitán García Hernández para ser colocada en su casa natal, en la actual calle Rioja[71]. Por la descripción de la prensa sabemos que presentaba un diseño bastante convencional: *La placa tiene al costado el busto del homenajeado y en el lado opuesto, la matrona que esparce laureles sobre la cabeza del héroe*[72]. Por desgracia, la placa tampoco se ha conservado y no aparece mencionada en el exhaustivo trabajo que realizó José María Sedano sobre la

69 *El gastetxu gasteiztarra Narkis Díez de Ibarrondo… fue recibido con una entusiasta ovación y el pequeño habló de manera clara y concisa, indicándoles la obligación de seguir el camino que sus padres han comenzado. El pequeño orador fue interrumpido con calurosos aplausos que se repitieron al aparecer su hermana, Elixe Díez de Ibarrondo* en "Propaganda nacionalista en Araba. Conferencia en Santa Cruz de Kanpetso" en *Euzkadi* 2-XII-1932, p. 6. Su hija mayor, Miren Edurne, era también una participante habitual, "Euzkadi. Grandes fiestas en Lezama (Araba)" en *Euzkadi* 22-X-1933, p. 6

70 "Hoy en el Teatro Príncipe" en La Libertad 7-VII-1932, p. 3; "El grupo Ostadarra" en Arabarra 7-I-1933, p. 3

71 *El 14 de julio de 1931 la calle Rioja pasó a llamarse calle García Hernández en recuerdo de un destacado republicano, Ángel García Hernández, militar vitoriano que encabezó la sublevación republicana de Jaca en 1930. Murió fusilado en dicha ciudad el 14 de diciembre de ese mismo año* en KNÖRR BORRÁS, Henrike; Elena MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, *Onomasticon Vasconie 27. Toponimia de Vitoria I. Gasteizko Toponimia I. Ciudad / Hiria*, Euskaltzaindia, Bilbao, 2009, pp. 466-467

72 "Se descubre una lápida en la casa en la que nació el capitán García Hernández" en *La Libertad* 14-IV-1932, p. 5

garbi agertu zuen bere sentimendu abertzalea, sentimendu hori langintza artistikoan ere gailentzen zelarik: *Nik ez dakit zein teknika erabiltzen dudan, ez dakit nor edo nortzuk izan diren nire moldeetan eragina izan dutenak; eskultore eta margolari izan baino lehen, artea bera eta berez maite eta sentitzen dudan arren, artista izan baino lehen, euskalduna naiz, eta pintzelarekin edo zizelarekin, gubiarekin edo paletarekin, kolorearen amalgamarekin edo odolaren beroarekin nire aberriaren zerbitzuko jardun nahi dut, ez besterik*[67].

Sentimendu nazionalista horren ondorioz, bizitza eta jarduera politikoa etengabeak izan ziren urte horietan. Primo de Riveraren diktaduraren amaieraren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen bateratzearen ondoren, Isaak Diezek eginkizun garrantzitsua hartu zuen ideologia hori Arabatik barrena hedatzean[68]. 1931tik 1933ko hauteskundeak izan arte, Díez mitin ugaritan izan zen, eta lurraldeko hainbat herritan ibili zen: Araian, Baranbion, Agurainen, Santikurutze Kanpezun, Oionen. Batzuetan, *Euzko-Gaztedi*[69] elkarteko kide ziren seme-alabekin batera joan ohi zen.

Sentimendu abertzalearen bulkada hori beste jarduera kultural batzuen bidez ere azaleratu zuen, hala nola musikaren eta antzerkiaren bidez, bereziki, *Ostadarra* taldearen bidez, non

67 LASTERRA, Crisanto, "Hablemos de arte. Charlas sobre la pintura vasca. Interesantes opiniones del notable pintor y escultor gasteiztarra": *Euzkadi* 1933-09-20, 2. or.

68 1931 eta 1932 artean, Euzko Gaztediko lehendakaria izan zen eta 1931ko ekainetik 1933ko otsailera bitartean, Araba Buru Batzarreko kide izan zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu Roman Berriozabali informazio hau emateagatik.

69 *Narkis Diez de Ibarrondo gaztetxu gasteiztarra... Txalo zaparrada bero batez hartu zuten eta haurrak argi eta zehatz hitz egin zuen, bere gurasoek hasitako bideari jarraitu beharra adieraziz. Txalo zaparradak eten zuen hizlari txikia eta txaloak izan ziren berriro arreba, Elixe Díez de Ibarrondo, agertu zenean*: "Propaganda nacionalista en Araba. Conferencia en Santa Cruz de Kanpetso": *Euzkadi* 1932-12-02, 6. or. Alaba zaharrena ere, Miren Edurne, mitinetara joan ohi zen. "Euzkadi. Grandes fiestas en Lezama (Araba)": *Euzkadi* 1933-10-22, 6. or.

Euzko Jokoileak karta sorta. Cartas de la baraja *Euzko Jokoileak.* Hacia 1933 aldera.
Arabako Fournier Karta Museoa. Museo Fournier de Naipes de Álava.

epigrafía vitoriana, así que creemos que desaparecería al inicio de la guerra civil[73].

Un homenaje es también el que realiza en 1933 al euskaltzale Abdón González de Alaiza[74] con la colocación de una estela en el cementerio de su localidad natal en Musitu (Álava)[75].

En ese mismo año, 1933, realiza una colaboración con la empresa Fournier para la realización de la conocida

73 SEDANO LAÑO, José María, *Epigrafía vitoriana: placas y lápidas, monumentos y esculturas,* Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Vitoria-Gasteiz, 1999

74 Abdón González de Alaiza (Musitu, Álava, 1876-1956) fue un periodista y un gran impulsor de la cultura vasca. Residió en Madrid y colaboró activamente en la creación de lo que más tarde será la Agrupación de Cultura Vasca. En Madrid contribuyó a difundir la publicación *Argia,* redactada íntegramente en euskera. A comienzos de 1926 comenzó a publicarse en ella una nueva sección, *Txisturen txokoa* (El rincón de Txistu) que puede considerare el primer comic en euskera. En 1927 se publicó de manera independiente, aunque González de Alaiza no la pudo ver ya que había fallecido repentinamente el año anterior. DÍAZ NOCI, Javier, "Abdón Alaiza: un alavés, artífice del primer comic vasco" en *Kultura*, año 1, época 2, octubre 1990, pp. 111-117; ELUSTONDO, Miel A., *Abdon Gonzalez de Alaizaren Alfabetoa (eta euskarazko lehenengo komiki-aldizkaria "Txistu")*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 2019

75 "El domingo en Musitu (Araba). El homenaje a la memoria de Alaiza" en *Euzkadi* 18-VII-1933, p. 3; "El domingo en Musitu. El homenaje a Abdón Alaiza" en *Tierra Vasca* 18-VII-1933, p. 1

Euzko Jokoileak karta sortaren bilgarria. Envoltorio de la baraja *Euzko Jokoileak*. Hacia 1933 aldera. Bilduma partikularra. Colección particular, Vitoria-Gasteiz.

Diezek zeregin garrantzitsua izan zuen antzezlanetako testu batzuk[70] idatzi zituen.

Bestalde, irakaskuntzari lotuta jarraitu zuen, bai Arte eta Lanbide Eskolan, bai eskola pribatuetan. Horrela, ikasleekin batera, García Hernández kapitainaren omenezko hilarria egin zuen beraren jaiotetxean ipintzeko, egungo Errioxa kalean[71]. Prentsan agertu zen deskribapenari erreparaturik, badakigu nahikoa diseinu konbentzionala zuela: *Plakak omenduaren bustoa dauka alboan, eta beste aldean, heroiaren buruaren gainean ereinotza zabaltzen duen andrea*[72]. Zoritxarrez, plakak ez du gaurdaino iraun, eta ez da aipatzen Jose Maria Sedanok Gasteizko epigrafiari buruz egin zuen lan sakonean; beraz, gure aburuz, Gerra Zibilaren hasieran desagertu egingo zen[73].

70 "Hoy en el Teatro Príncipe": *La Libertad* 1932-07-07, 3; "El grupo Ostadarra": *Arabarra* 1933-01-07, 3. or.

71 *1931ko uztailaren 14an, Errioxa kaleak García Hernández izena hartu zuen, 1930ean Jakako altxamendu errepublikanoaren buru izan zen Angel García Hernández militar gasteiztar nabarmenaren oroimenez. Urte bereko abenduaren 14an hil zen hiri horretan fusilatuta*: KNÖRR BORRÁS, Henrike; Elena MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, *Onomasticon Vasconiae 27. Toponimia de Vitoria I. Gasteizko Toponimia I. Ciudad / Hiria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2009, 466.-467. orr.

72 "Se descubre una lápida en la casa en la que nació el capitán García Hernández": *La Libertad* 1932-04-14, 5. or.

73 SEDANO LAÑO, José María, *Epigrafía vitoriana: placas y lápidas, monumentos y esculturas*, Vitoria-Gasteizko Udala, Vitoria-Gasteiz, 1999

como baraja vasca o *Euzko Jokoileak. Euzkadi*[76]. Este trabajo se explica dentro de la campaña que se había realizado para conseguir la "vasquización" de los juegos y los juguetes[77]. Así la baraja presentaba algunos cambios: las figuras de los reyes eran sustituidas por el *basajaun* (el señor del bosque, un personaje mitológico vasco), como rey de bastos, un *ezpatadantzari* (bailarín vasco que porta una espada) como rey de espadas, un *koblakari* (poeta o trovador) como rey de copas y un *etxeko jaun* (regidor) como rey de oros. Los caballos se sustituyen por un *zamaltzain*, uno de los personajes principales de la mascarada suletina (bastos), por el general Zumalakarregi (espadas), por una bruja que cabalga sobre un macho cabrío, entre nubes, dirigiéndose al akelarre (copas) y por un alcalde de la llanada alavesa que acude a caballo a la romería de Olarizu en Vitoria (oros). Las sotas se sustituyen por los maceros de las Diputaciones. Finalmente, los ases muestran distintos momentos históricos y símbolos del País Vasco. En este aspecto, Isaak Díez sigue también los pasos de su maestro Díaz Olano, quien en 1875-1877 junto a Emilio Soubrier, realizó el diseño de la llamada *Baraja de Manuel Cánovas* [78].

El año 1934 es importante en la vida de Isaak Díez. Por un lado, participa activamente (tanto en su faceta política como artística) en la organización del *Aberri Eguna* (Día de la Patria), festividad organizada por el Partido Nacionalista Vasco en homenaje a su fundador; por otro, abandona su localidad natal para instalarse en Rentería (Gipuzkoa).

76 Nº de inventario 44488. Museo Fournier de Naipes de Álava

77 AITZOL, "Euzko jokailea. El naipe vasco" en *Euzkadi* 16-III-1935, p. 3. El autor del artículo es el sacerdote José Ariztimuño Olaso que firmaba sus artículos como Aitzol. Vinculado al Partido Nacionalista Vasco tuvo un papel muy destacado en el renacimiento del euskera y en el impulso de la cultura vasca. Vid. AIZPURU MURUA, Mikel, "Aitzol, un dinamizador de la nación vasca" en *Deia* 15-X-2011, pp. 24-25

78 Nº de inventario 44470. Museo Fournier de Naipes de Álava

1933. urtean, omenaldia egin zion Abdón González de Alaiza euskaltzaleari[74] jaioterriko hilerrian, Musitun (Araba) hilarria jarrita[75].

Urte horretan bertan, 1933an, lan bat egin zuen Fournier enpresarentzat, euskal karta sorta edo *Euzko Jokoileak. Euzkadi*[76] *detu zena egiteko.* Lan hori jolasen eta jostailuen «baskizazioa» lortzeko egin zen kanpainaren esparruan ulertu behar dugu[77]. Horrela, hainbat aldaketa egin zituen karta sortan: erregeen irudien ordez, esate baterako, *basajauna* ageri zen errege bastoaren ordez, *ezpata-dantzaria* errege ezpata bailitzan, *koblakaria* errege koparena eginda eta *etxeko jauna* (erregidorea), errege urrea legez. Zaldien ordez, Zuberoako maskaradetan ohikoa den zamaltzaina (zaldi bastoa), Zumalakarregi jenerala (zaldi ezpata), akelarrera aker baten gainean doan sorgin bat, hodei artean (zaldi kopa) eta Gasteizko Olarizuko erromeriara zaldi gainean doan Arabako lautadako alkate bat (zaldi urrea) daude. Txoten ordez, berriz, diputazioetako mazolariak ageri dira.

74 Abdon Gonzalez de Alaiza (Musitu, Araba, 1876-1956) kazetaria eta euskal kulturaren bultzatzaile sutsua izan zen. Madrilen bizi izan zen eta Euskal Kultura Batza izan zenaren sorreran gogotik parte hartu zuen. Madrilen euskara hutsean idatzitako *Argia* argitalpena zabaltzen lagundu zuen. 1926aren hasieran bertan sail berri bat argitaratzen hasi zen, *Txisturen txokoa*, euskarazko lehen komikitzat har daitekeena. 1927an, modu independentean argitaratu zen, baina González de Alaizak ezin izan zuen ikusi, aurreko urtean bat-batean hil baitzen. DÍAZ NOCI, Javier, "Abdón Alaiza: un alavés, artífice del primer comic vasco": *Kultura*, 1. urtea, 2. aroa, 1990eko urria, 111.-117. orr; ELUSTONDO, Miel A., *Abdon Gonzalez de Alaizaren Alfabetoa (eta euskarazko lehenengo komiki-aldizkaria "Txistu"*), Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 2019

75 "El domingo en Musitu (Araba). El homenaje a la memoria de Alaiza": *Euzkadi* 1933-07-18, 3. or.; "El domingo en Musitu. El homenaje a Abdón Alaiza": *Tierra Vasca* 1933-07-18, 1. or.

76 Inbentario-zk. 44488. Arabako Fournier Karta Museoa

77 AITZOL, "Euzko jokailea. El naipe vasco": *Euzkadi* 1935-03-16, 3. or. Artikuluaren egilea José Ariztimuño Olaso apaiza da, artikuluak Aitzol izena erabiliz sinatzen zituena Euzko Alderdi Jeltzaleari lotuta, euskararen berpizkundean eta euskal kulturaren sustapenean oso eginkizun nabarmena izan zuen. Ikus AIZPURU MURUA, Mikel, "Aitzol, un dinamizador de la nación vasca": *Deia* 2011-10-15, 24.-25. orr.

Isaak Díez. *1934an Gasteizen egin zen Aberri Eguneko kartela*. Cartel del *Aberri Eguna* de 1934, celebrado en Vitoria-Gasteiz.
Fundación Sabino Arana Fundazioa.

Isaak Díez. *1934ko Aberri Eguneko programa.* Programa del *Aberri Eguna* de 1934.
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa.

El de 1934 fue el tercer *Aberri Eguna* que se celebró y concentró en la capital alavesa a cerca de cincuenta mil personas procedentes de toda la geografía vasca[79]. Isaak Díez realizó el programa del acto y colaboró también con la realización de un cartel; en el aparecen un hombre y una mujer encadenados y sujetando el escudo de las siete provincias vascas o *Zazpiak Bat*[80]. Asimismo, participó activamente en la organización de una exposición de pintura en los salones del Círculo Vitoriano. En ella se mostraron obras de Adrián de Aldecoa, Aurelio Vera-Fajardo, Saralegi, Uribe y del propio Díez[81]. Por la prensa del momento conocemos los títulos de las obras que presentó[82]; una vez más combina el paisaje, con las escenas de género o las naturalezas muertas o bodegones. Es muy

79 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren, *Aberri Eguna. 70 años de fiesta y reivindicación*, Fundación Sabino Arana, Bilbao, 2002, p. 23

80 BERRIOZABAL AZPITARTE, Román, *Aberri Eguna (Gasteiz, 1934). ¡Euzkadi entera está en Araba!,* Arabera Kultur Elkartea, Bilbao, 2005, p. 55. Se realizaron dos carteles más, uno firmado por el pintor vitoriano Ángel Sáenz de Ugarte y el otro por un artista que firmó con el seudónimo Ga eta Goi

81 BERRIOZABAL AZPITARTE, Román, op. cit, p. 60; "Apertura de la exposición de pintura" en *Euzkadi* 31-III-1934, p. 2

82 *Frutas, Nire ama, Naturaleza muerta, Flores, Alimañas, Romería, Vitoria (Gasteiz), Día de fiesta, Las tres Gracias, La llanada (Álava), El palco de los sastres, Campo de Arana, Otoñal, Cercamar de Gasteiz (sic), La escondida senda* en "En el Círculo Vitoriano. Visitando una exposición" en *La Libertad* 3-IV-1934, p. 3

Azkenik, paloetako batek Euskal Herriko hainbat une historiko eta ikur darakuskite. Alderdi horretan ere, Isaak Diezek bere maisu Díaz Olanoren urratsei jarraitu zien; izan ere, Olanok, 1875-1877an, Emilio Soubrierrekin batera, *Manuel Canovasen karta sorta*[78] deiturikoaren diseinua egin zuen.



Dantzarien erakustaldia Mendizorrotzan, Aberri Eguna ospatzeko. Exhibición de dantzaris en Mendizorroza con motivo de la celebración del *Aberri Eguna*.
Enrique Guinea. 1934. GUA/AMVG: GUI-II-24_09.

1934. urtea garrantzitsua izan zen Isaak Diezen bizitzan. Alde batetik, gogotik parte hartu zuen Euzko Alderdi Jeltzaleak sortzailearen omenez antolatu ohi duen *Aberri Eguna* antolatzen (alderdi politikoan zein artistikoan); bestetik, jaioterria atzean utzi eta Errenteriara (Gipuzkoa) bizitzera joan zen.

1934koa hirugarren *Aberri Eguna* izan zen eta euskal herri guztietatik etorritako berrogeita hamar mila pertsona inguru bildu ziren Arabako hiriburuan[79]. Isaak Diezek ekitaldiaren egitaraua egin zuen eta kartel bat egiten ere lagundu zuen; bertan gizon bat eta emakume bat kateaturik ageri dira, zazpi euskal

78 Inbentario-zk. 44470. Arabako Fournier Karta Museoa

79 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren, *Aberri Eguna. 70 años de fiesta y reivindicación*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2002, 23. or.

Isaak Díez. *Gasteizko ikuspegia. Vista de Vitoria*. Hacia 1934 aldera.
Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava.

posible que una de las obras de la colección del Museo de Bellas Artes de Álava, *Vista de Vitoria*, sea de este momento. En ella se representa una panorámica de la ciudad donde destacan las torres de las iglesias, especialmente la de la Catedral de Santa María. Se refleja fielmente el carácter agrícola de la ciudad ya que en primer plano están las tierras de labranza que rodeaban la capital alavesa, aunque se ven ya los inicios de la industrialización con una fábrica en un plano medio. Los árboles marcan los planos de la composición que destaca especialmente por el colorido, con distintas gamas de verde y los tonos rosas y malvas del cielo.

En mayo de este mismo año, 1934 se instala en Rentería (Gipuzkoa) y solicita una excedencia en la Escuela de Artes y Oficios[83]. Lo cierto es que desconocemos el motivo de su marcha, sobre todo porque no parece estar relacionado con ningún proyecto artístico. Por la prensa, sabemos que se dedicaba a dar clases de dibujo, como también hacía en Vitoria al margen de su docencia en la Escuela de Artes y Oficios[84].

83 "Notas tristes" en *Euzkadi 1*-V-1934, p. 7

84 "Información regional" en *Euzkadi,* 19-V-1934, p. 5

probintzien armarriari edo *Zazpiak Bat*[80] deritzonari eusten daudela. Era berean, Círculo Vitoriano elkartearen aretoetan egin zen pintura erakusketa antolatzen parte hartu zuen. Bertan, Adrian Aldecoa, Aurelio Vera-Fajardo, Saralegi, Uribe eta Diezen beraren lanak erakutsi ziren[81]. Garaiko prentsari esker dakizkigu Diezek aurkeztutako lanen izenburuak[82]; erakusketa horretan ere, paisaia, ohiturazko eszenak, natura hilak edo natura hilak konbinatu zituen. Litekeena da Arabako Arte Ederren Museoko bilduman gordeta dagoen lanetako bat, *Gasteizko ikuspegia*, izenekoa, une horretakoa izatea. Bertan, hiriaren ikuspegi zabala ikus daiteke, non elizetako dorreak nabarmentzen diren, bereziki, Santa María Katedralekoa. Hiriaren nekazaritza-izaera ere doi-doi islatzen da; hain zuzen ere, Arabako hiriburua inguratzen zuten laborantza lurrak aurreneko planoan daude, nahiz eta industrializazioaren hastapenak ere agerikoak diren, erdialdeko planoan lantegi bat agertzen dela. Zuhaitzek konposizioaren planoak nabarmentzen dituzte, eta, batez ere, kolorea da bereizgarria, zenbait berde eta, zeruan, arrosa eta malba koloreak.

Urte horretako maiatzean, 1934an, Errenterian (Gipuzkoa) bizitzen hasi zen, Arte eta Lanbide Eskolan eszedentzia hartuta[83]. Egia esatera, ez dakigu zergatik joan zen, batez ere, joanaldia ez omen zegoelako inolako proiektu artistikorekin lotuta. Prentsaren

80 BERRIOZABAL AZPITARTE, Roman, *Aberri Eguna (Gasteiz, 1934). ¡Euzkadi entera está en Araba!,* Arabera Kultur Elkartea, Bilbo, 2005, 55. or. Beste bi kartel egin ziren, bata Ángel Sáenz de Ugarte margolari gasteiztarrak sinatua eta bestea Ga eta Goi ezizenarekin sinatu zuen artista batek sinatua.

81 BERRIOZABAL AZPITARTE, Roman, op. cit, 60. or.; "Apertura de la exposición de pintura": *Euzkadi* 1934-03-31, 2. or.

82 *Frutas, Nire ama, Naturaleza muerta, Flores, Alimañas, Romería, Vitoria (Gasteiz), Día de fiesta, Las tres Gracias, La llanada (Álava), El palco de los sastres, Campo de Arana, Otoñal, Cercamar de Gasteiz (sic), La escondida senda*: "En el Círculo Vitoriano. Visitando una exposición": *La Libertad* 1934-04-03, 3. or.

83 "Notas tristes": *Euzkadi* 1934-05-01, 7. or.

Continúa vinculado con su ciudad natal, ya que en ese mismo año se había presentado al concurso convocado por la Caja de Ahorros Municipal de Vitoria para la decoración de la fachada del nuevo edificio. Los bocetos de Isaak Díez, Marín y Goicolea, Daniel González y Joaquín Lucarini se expusieron en el paraninfo de la Escuela de Artes y Oficios.[85] El concurso fue finalmente ganado por el artista alavés Lucarini.

En 1935 realiza la decoración del batzoki de Rentería, del local dedicado a las mujeres, a las *emakumes*. En esta obra, que tampoco se ha conservado, vuelve a tocar el tema regionalista, combinando la escena de género con el paisaje, tal y como recoge la prensa del momento: *unos asuntos alegóricos a la misión de la mujer en el hogar y en su actuación en el campo de la idea por la liberación patria... Magníficos horizontes de luz y color envuelven a sus figuras. En ellos, a la belleza de nuestros paisajes, vistos a través de su sensibilidad arabarra*[86]. Era un programa amplio, de cuatro lienzos, que estaba coronado por la figura de San Miguel de Aralar, patrón del Partido Nacionalista Vasco, un tema que el artista repetirá en otras ocasiones.

En 1936 participa en la Exposición de Pinturas de Artistas Alaveses que se celebra en la Escuela de Artes y Oficios de Vitoria. Esta fue una importante exposición que intentaba reflejar el panorama artístico alavés. El momento elegido fue convulso ya que se celebró en el mes de agosto de ese año, tras el inicio de la guerra civil. Díez presentó tres cuadros: *Desde mi estudio*, *Rincón guipuzcoano* y *Txistu-txiki*[87].

85 "Álava. Bocetos para los grupos escultóricos" en *El Liberal* 19-VII-1934, p. 3

86 PELI, "Isaac y Errendari" en *Euzkadi* 16-V-1935, p. 4

87 SÁENZ DE UGARTE, Ángel, "Notas de arte. La exposición de pintores alaveses en la Escuela de Artes y Oficios" en *La Libertad* 11-VIII-1936, p. 2; ACEBEDO, "Los pintores vitorianos hacen su exposición" en *Pensamiento Alavés* 11-VIII-1936, p. 4

arabera, marrazketa-eskolak ematen zituen, Gasteizen ere egiten zuen bezala, Arte eta Lanbide Eskolan irakasten zuenaz gain[84].

Diezek jaioterriarekin lotuta jarraitu zuen; urte horretan bertan, hain zuzen ere, Gasteizko Aurrezki Kutxak eraikin berriaren fatxada apaintzeko deitu zuen lehiaketara aurkeztu zen. Isaak Diezen, Marín eta Goicolearen, Daniel Gonzalezen eta Joaquín Lucariniren zirriborroak Arte eta Lanbide Eskolako paraninfoan erakutsi ziren.[85] Azkenean, Lucarini artista arabarrak irabazi zuen lehiaketa.

1935ean, Errenteriako batzokia apaindu zuen, hain zuzen, *emakumeei* eskainitako lokala. Lan horrek ere ez du gaurdaino iraun, baina ezaguna da motibo erregionalistak margotu zituela, ohitura-irudiak eta paisaiak uztartuz, garaiko prentsan agertu zen bezala: *gai alegorikoak, emakumeek etxean duten eginkizunei buruzkoa eta, soroetan dihardutela, aberriaren askapenaren aldeko ideiari buruzkoak... Argiz eta kolorez blaitutako zeruertz zoragarriek inguratzen dituzte irudiak. Horietan, gure paisaien edertasuna agerian, arabar sentiberatasunez ikusita*[86]. Sorta zabala zen, lau oihalez osatutakoa, horien buruan, Euzko Alderdi Jeltzalearen zaindari Aralarko San Migel ageri zela. Artistak beste batzuetan erabili zuen gai hori.

1936. urtean, Arabako Artisten Pinturen Erakusketan parte hartu zuen, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan. Erakusketa garrantzitsua izan zen, Arabako orduko egoeraren berri eman nahi zuena. Erakusketa egiteko hautatu zen unea nahikoa nahasia izan zen, abuztuan egin zela, Gerra Zibila hasi eta gutxira. Diezek hiru margolan eraman zituen erakusketara: *Nire estudiotik*,

84 "Información regional": *Euzkadi*, 1934-05-19, 5. or.

85 "Álava. Bocetos para los grupos escultóricos": *El Liberal* 1934-07-19, 3. or.

86 PELI, "Isaac y Errendari": *Euzkadi* 1935-05-16, 4. or.

Isaak Díez. *Txistu-txiki*. 1936.
Arabako Arte Ederren Museoa. Museo de Bellas Artes de Álava.

Este último es el tercer cuadro que forma parte de la colección del Museo de Bellas Artes de Álava. Es una obra fechada en 1936 y que muy posiblemente represente a uno de sus hijos, Narkis, que fue en su madurez un importante txistulari, con gran reconocimiento sobre todo en el País Vasco francés, donde desarrolló su carrera[88]. El personaje principal, en primer plano, es un joven txistulari que se presenta vestido con boina y kaiku y que toca el txistu y el tamboril. En segundo plano, un grupo de mujeres, más abocetadas llevan unos cestos de fruta en la cabeza y responden a ese modelo del costumbrismo etnográfico, reforzando la imagen idílica del medio rural vasco. Hay que destacar aquí la atención que se presta al paisaje, con un fondo de montañas y distintos árboles en gamas cromáticas de verde. El cielo y las nubes están bien resueltas, jugando con las luces y las sombras.

88 https://www.euskonews.eus/zbk/253/narkis-diez-de-ibarrondo-le-pere-des-txistularis-nest-plus/ar-0253001004F/ [consulta 18/03/2024)

Gipuzkoako bazterra eta *Txistu-txiki*[87].

Azkena dugu Arabako Arte Ederren Museoaren bilduman dagoen hirugarren margolana. Margolan hori 1936koa da, eta, ziur aski, semeetako bati eskainita dago, Narkisi, hain zuzen, txistulari ospetsua izan baitzen, batez ere, jarduera oparoa izan zuen Ipar Euskal Herrian[88]. Pertsonaia nagusia, aurreko planoan, txapela eta kaikua jantzita dituen txistulari gaztea da, txistua eta danbolina jotzen. Bigarren planoan, nabarmen zirrimarratuago ageri diren emakumeek batzuek frutaz beteriko saskiak daramatzate buruan, kostunbrismo etnografikoaren ereduari jarraikiz, euskal landa-ingurunearen irudi idilikoa indartu nahian. Lan horretan, paisaiari eskaintzen zaion arreta nabarmendu behar da, atzeko planoan

Arabako artisten pinturen erakusketa, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan, 1936ko udan. Exposición de pintura de artistas alaveses celebrada en la Escuela de Artes y Oficios en el verano de 1936.
Ceferino Yanguas. 1936. GUA/AMVG: YAN-13X18-086_33.

87 SÁENZ DE UGARTE, Ángel, "Notas de arte. La exposición de pintores alaveses en la Escuela de Artes y Oficios": *La Libertad* 1936-08-11, 2. or.; ACEBEDO, "Los pintores vitorianos hacen su exposición" en *Pensamiento Alavés* 1936-08-11, 4. or.

88 https://www.euskonews.eus/zbk/253/narkis-diez-de-ibarrondo-le-pere-des-txistularis-nest-plus/ar-0253001004F/ [kontsulta: 2024/03/18]

La Guerra Civil y su etapa de refugiado en Francia

En septiembre de 1936, Díez se encuentra en Bilbao, realizando labores de asistencia con el Partido Nacionalista Vasco[89] y en diciembre está ya en el frente, con el Batallón Araba, en Llodio. Incluso en ese momento, continúa con su actividad artística ya que allí realiza un boceto para un panteón para los gudaris muertos en campaña*: La figura del panteón tendrá 2,30 metros de altura. Es una esbelta y enlutada matrona que sostiene entre sus manos un cáliz. En el centro del pecho se advierte un escudo de Araba y a los pies el de Euzkadi. Felicitamos al gran Isaac, pues ciertamente que la obra merece las felicitaciones generales*[90].

En mayo de 1937 Isaak continúa en el frente, en el sector de Baranbio-Orduña. El diario *Euzkadi* publica un dibujo suyo titulado *Horas de tedio*, en el que se refleja esos momentos de calma tensa previos a la batalla[91].

La caída de Bilbao en junio de 1937 provocó el exilio de muchas personas del País Vasco. Este fue el caso de la familia de Isaak Díez ya que llegaron a Burdeos el 3 de julio de 1937 para pasar luego a Cahors, en la Occitania francesa. Tal y como recoge la documentación, los refugiados eran María Jiménez, su mujer, de 41 años y sus hijos Miren Edurne (19), Iztiñe [sic] (16), Narkiz (14), Elise (12) y Sabin (10)[92].

89 "Asistencia social del PNV" en *Euzkadi* 25-IX-1936, p. 7

90 "Guda-otsak. En contacto con nuestros batallones. Al habla con los gudaris del batallón Araba" en *Euzkadi* 24-XII-1936, p. 8

91 "Horas de tedio. Del escenario de la lucha" en *Euzkadi* 30-V-1937, p. 5

92 *Evacuación. Secretaria.* Fondos del Departamento de Asistencia Social. Evacuación. Secretaría. Legajo 464 / nº legajo: 01, p. 39. Archivo Histórico del Gobierno Vasco

mendiak eta askotariko berdez margotutako zuhaitzak ikusten direla. Zeru-hodeiak bikain margotuta daude, argiekin eta itzalekin jolasean.

Gerra Zibila eta errefuxiatu bizimodua Frantzian

1936ko irailean, Díez Bilbon zegoen, Euzko Alderdi Jeltzalearen laguntza-lanak egiten[89] eta abenduan, frontean ziharduen, Araba batailoian, Laudion. Sasoi horretan ere lotu zitzaion jarduera artistikoari, eta gerran hildako gudarientzako panteoi baten gaineko zirriborroa egin zuen*:: Panteoiaren irudiak 2,30 metroko garaiera izango du. Eskuetan kaliza daukan andre liraina da, lutoz jantzitakoa. Bularraren erdian, Arabako armarria ikusten da, eta, oinaldean, Euzkadikoa. Isaac handia zoriondu behar dugu, egindako lana, egiatan zoriontzeko modukoa baita*[90].

Isaak Díez. *Euzkadi egunkarian 1937ko maiatzaren 30ean argitaratutako marrazkia.* Dibujo publicado en el periódico *Euzkadi* el 30 de mayo de 1937. Euskariana.

1937ko maiatzean, Isaak frontean zebilen artean, Baranbio-Urduñako sektorean. *Euzkadi* egunkariak, *Horas de tedio* izeneko marrazkia argitaratu zion; borrokaren aurreko lasaitasun tirabiratsuz beteriko uneak islatzen dira marrazkian[91].

89 "Asistencia social del PNV": *Euzkadi* 1936-09-25, 7. or.

90 "Guda-otsak. En contacto con nuestros batallones. Al habla con los gudaris del batallón Araba": *Euzkadi* 1936-12-24, 8. or.

91 "Horas de tedio. Del escenario de la lucha": *Euzkadi* 1937-05-30, 5. or.

José Antonio Aguirre lehendakaria, frontera egindako bisita batean, Estatu Nagusiko ofizialekin, horien artean, Isaak Díez.
El lehendakari José Antonio Aguirre con oficiales del Estado Mayor durante una visita al frente. Entre ellos, Isaak Díez.
Euskadiko Artxibo Historikoa – Archivo Histórico de Euskadi. Sancho de Beurko funtsa / fondo. 4036/P17_13_aH13-a.

Isaak Díez aparece en una relación de los capturados en Santoña en los meses de noviembre y diciembre de 1937. Figura como capitán del Departamento de Intendencia General[93]. Desconocemos en qué momento se produce el exilio a Francia. Sabemos que en mayo de 1938 está ya allí porque realiza el boceto de panteón para dos exiliados que fallecieron en el refugio de Saint Christau, una localidad cercana a Oloron donde el departamento de Asistencia Social del Gobierno Vasco realizó una labor encomiable con los refugiados[94]. El dibujo muestra una matrona cubierta con una túnica y la cabeza agachada en señal de respeto con una espada entre sus manos y con el escudo de Euzkadi en la parte frontal de su cuerpo. A sus pies, dos hombres jóvenes y musculosos sujetan una lauda sobre las tumbas de los fallecidos. El presupuesto para la ejecución de este panteón era

93 OLAZABAL ESTECHA, Carlos María, *El PNV y la rendición de Santoña*, Fundación Popular de Estudios Vascos, Bilbao, 2017, p. 284

94 PENCHE GONZÁLEZ, Jon, "El exilio vasco en Francia. La labor del Departamento de Asistencia Social" en DIÉGUEZ CEQUIEL, Uxio-Breogán, *Exilios, migraciones e fronteiras*, Instituto Galego de Historia, 2019, pp. 155-167

1937ko ekainean, Bilbo galdu zenean, euskal herritar ugari erbestera joan ziren. Horixe izan zen Isaak Diezen familiaren patua: 1937ko uztailaren 3an, Bordelera iritsi ziren eta handik Frantziako Okzitaniako Cahors herrira joan ziren. Dokumentazioak jasotzen duenez, hauexek ziren iheslariak: María Jiménez, 41 urteko emaztea eta Miren Edurne (19), Iztiñe [sic] (16), Narkiz (14), Elise (12) eta Sabin (10) seme-alabak[92].

Isaak Díez. *Saint Christau (Frantzia) errefuxiatu esparrurako hileta panteoiaren zirriborroa.*
Boceto de panteón funerario para el campo de refugiados de Saint Christau (Francia). 1938.
Euskadiko Artxibo Historikoa – Archivo Histórico de Euskadi. Legajo 786-01.

Isaak Diez 1937ko azaroan eta abenduan Santoñan harrapatutakoen zerrenda batean agertu zen. Intendentzia Orokorreko Departamentuaren kapitaina zela esaten da[93]. Bestetik, ez dakigu noiz erbesteratu zen Frantziara. Badakigu, ordea, 1938ko maiatzean bertan zegoela, Saint Christau aterpean hil ziren bi erbesteraturentzako panteoiaren zirriborroa egin zuelako. Oloroetik gertu dagoen herri horretan, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Laguntza Sailak lan goresgarria egin zuen iheslariei laguntzeko[94]. Marrazkian, andre bat ageri da, tunika batez estalia eta burua

92 *Ebakuazioa. Idazkaritza*. Gizarte Laguntza Sailaren funtsak. Ebakuazioa. Idazkaritza. 464 paper-sorta 01, 39. or. Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa

93 OLAZABAL ESTECHA, Carlos María, *El PNV y la rendición de Santoña*, Fundación Popular de Estudios Vascos, Bilbo, 2017, 284. or.

94 PENCHE GONZÁLEZ, Jon, "El exilio vasco en Francia. La labor del Departamento de Asistencia Social" en DIÉGUEZ CEQUIEL, Uxio-Breogán, *Exilios, migraciones e fronteiras*, Instituto Galego de Historia, 2019, 155.-167. orr.

de 600 francos, pero parece que no se llegó a realizar[95]. Según información facilitada por Román Berriozabal, estuvo ejerciendo de profesor de dibujo en los talleres de formación organizados en el hospital-residencia de mutilados de guerra habilitado en el hotel La Roseraie, de Bidart, por el Gobierno Vasco. Lo cierto es que las condiciones que tuvieron que sufrir en este exilio fueron muy duras, tal y como se recoge en la abundante bibliografía al respecto[96].

En 1940 se encuentra en la zona cercana a Tarbes, ya que, para festejar San Prudencio, patrón de Álava, los exiliados vascos de la zona regalan a la catedral de la localidad un lienzo de Isaak Díez. Es una obra de temática religiosa, Jesús en el Huerto de los Olivos, que lleva por título *Garraztasun Edontzi*[97] (Cáliz de la amargura).

En 1941 realiza dos obras para la iglesia de San Martin en Villeneuve-du-Latou. Son nuevamente dos motivos religiosos, la Asunción de la Virgen y la Resurrección de Cristo. No obstante, el conjunto más completo lo realiza en la iglesia de San Anastasio en la localidad de Saint-Martin-d`Oydes también en 1941. Aquí realiza dos pinturas para el coro y dos grandes frisos en las naves de la iglesia. Al parecer, Isaak Díez residía en esta zona y estaba amparado por la figura de Pierre Dumas, un activista de la

95 *Correspondencia fechada entre el 10 de noviembre de 1937 y el 18 de julio de 1939, mantenida por Eliodoro de la Torre con Luis Bilbao y José Luis Aransolo, Inspector y Subinspector General de Higiene del Gobierno de Euzkadi.* Secretaría General. Correspondencia. Legajo 786 / nº legajo: 01, pp. 102-103. Archivo Histórico del Gobierno Vasco. Fondo del Departamento de Sanidad

96 Entre ella podemos citar: PENCHE GONZÁLEZ, Jon, op. cit., pp. 155-167; DREYFUS-ARMAND, Genevieve, "Campos en Francia para republicanos españoles en 1939. Una tierra de asilo convertida en cárcel" en *Gerardo Lizarraga. Artista en el exilio. Artista erbestean,* Gobierno de Navarra, Instituto Navarro de la Memoria, Pamplona, 2021, pp. 19-29; ALONSO CARBALLÉS, Jesús J., "El primer exilio de los vascos, 1936-1939" en *Historia Contemporánea,* nº 35, 2007, pp. 683-708

97 "Dans l`exil. Una féte des Basques á Tarbes", *Euzko Deya 10-V-1940, p. 7*

makurturik, begirunea adierazteko. Ezpata dauka eskuetan eta Euzkadiko armarria ageri da gorputzaren aurrealdean. Andrearen oinetan, bi gizon gazte eta gihartsu ageri dira hilarri bati eusten, hildakoen hilobien gainean. Panteoi hori egiteko aurrekontua 600 liberakoa izan zen, baina badirudi ez zela eraiki[95]. Roman Berriozabalek emandako informazioaren arabera, Isaak marrazketa irakasle aritu zen Eusko Jaurlaritzak Bidarteko La Roseraie hotelean egokitu zuen gerrako elbarrien ospitale-egoitzan antolatu ziren prestakuntza ikastaroetan. Zinez, erbestean pairatu behar izan zituzten baldintzak oso gogorrak izan ziren, horri buruzko bibliografia oparoan jasotzen den bezala[96].

1940an, Tarbesetik gertu zegoen; izan ere, Arabako zaindari San Prudentzioren eguna ospatzeko, inguru horretako euskal erbesteratuek Isaak Diezen mihise bat oparitu zioten herriko katedralari. Erlijio kutsuko lana izan zen, Jesus Olibondoen baratzean ageri dela, *Garraztasun Edontzi*[97] deiturikoa.

1941ean, bi obra egin zituen Villeneuve-du-Latou herriko San Martin elizan jartzeko. Berriro ere, erlijio kutsuko margolanak izan ziren, bata, Ama Birjinaren Jasokundea eta, bestea, Kristoren Piztuera. Hala eta guztiz ere, lan multzorik osoena San Anastasio elizan egin zuen, Saint-Martin-d'Oydes herrian, 1941ean. Han, koruan erakusteko bi pintura eta elizako nabeetan eskegitzeko bi friso handi margotu zituen. Dirudienez, Isaak Díez inguru

95 *1937ko azaroaren 10etik 1939ko uztailaren 18ra arteko gutuneria, Eliodoro de la Torreren, Luis Bilbaoren eta Jose Luis Aransolo Euzkadiko Jaurlaritzako Higieneko ikuskatzaile eta ikuskatzaileorde nagusiaren artekoa*. Idazkaritza Nagusia. Gutuneria. 786 paper-sorta: 01, 102.-103. orr. Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Osasun Sailaren Funtsa

96 Besteak beste, ondokoak aipa ditzakegu: PENCHE GONZÁLEZ, Jon, op. cit., 155.-167. orr.; DREYFUS-ARMAND, Genevieve, "Campos en Francia para republicanos españoles en 1939. Una tierra de asilo convertida en cárcel": *Gerardo Lizarraga. Artista en el exilio. Artista erbestean*, Nafarroako Gobernua, Memoriaren Nafarroako Institutua, Iruñea, 2021, 19.-29. orr.; ALONSO CARBALLÉS, Jesús J., "El primer exilio de los vascos, 1936-1939": *Historia Contemporánea*, 35. zk., 2007, 683.-708. orr.

97 "Dans l`exil. Una féte des Basques á Tarbes", *Euzko Deya* 1940-05-10, 7. or.

*Saint Martin d`Oydes-eko (Frantzia) San Anastasio elizako fatxada.* Fachada de la iglesia de San Anastasio en Saint Martin d`Oydes (Francia). Jean-François Peiré, Inventaire général Région Occitanie (France).

resistencia francesa que vivía en la localidad[98].

En uno de los muros de la iglesia realiza dos escenas de la vida de San Martin de Tours, patrono de la localidad. Están separadas por una columna en la que figura la firma del artista*: Isaak Diez / de Ibarrondo / Basque-exilé / année / MCM XLI*. La primera muestra uno de los episodios más significativos en la vida del santo, el momento en que parte su capa con una espada para compartirla con un mendigo. San Martin se presenta como un oficial romano, de perfil, entregando al mendigo arrodillado ante él su manto cortado con la espada. Un oficial romano contempla la escena desde la izquierda, mientras que el otro, a la derecha, sujeta las riendas del caballo del santo. En esa misma zona, tres santas mujeres se arrodillan en oración. La parte izquierda de la composición muestra al fondo el monte Gólgota y en el camino se observan dos personas que no se detuvieron a ayudar al mendigo. La segunda refleja el momento en que Martín ve en sueños a Cristo que se le aparece vestido con su manto y que dice a los ángeles: *Martín, que aún es solo catecúmeno, me cubrió con este manto*. El santo aparece representado de perfil, arrodillado y parece besar los pies de Cristo. Este último también se presenta de perfil en una nube y rodeado por ocho ángeles con las alas

98 https://fr.wikipedia.org/wiki/Pierre_Dumas_(homme_politique,_1891-1968) [consulta 18/03/2024]

Isaak Díez. *San Martin, bere mantua zatitzen. San Anastasio eliza.* San Martín partiendo su capa. Iglesia de San Anastasio. 1941. Jean-François Peiré, Inventaire général Région Occitanie (France).

horretan bizi zen, eta herri horretan bertan bizi zen Pierre Dumas Frantziako erresistentziako aktibistak babesten zuen[98].

Elizako horma batean, herri horretako zaindari San Martin Toursekoaren bizitzako bi eszena margotu zituen. Zutabe batek bereizten ditu margoak eta artistaren sinadura zutabean idatzita ageri da*: Isaak Diez / de Ibarrondo / Basque-exilé / année / MCM XLI*. Lehenengo lanak santuaren bizitzako une esanguratsuenetako bat darakutsa: santuak kapa ezpata batez zatitu zueneko unea, eskale batekin partekatzeko. San Martin ofizial erromatar gisa ageri da, soslai, aurrean belaunikaturik dagoen eskaleari kaparen zatia ematen diola. Ofizial erromatar batek ezkerretik begiratzen dio eszenari, eta beste ofizialak,

98 https://fr.wikipedia.org/wiki/Pierre_Dumas_(homme_politique,_1891-1968) [kontsulta: 2024/03/18]

Isaak Díez.*San Anastasioaren miraría.* San Anastasio eliza. Milagro de San Anastasio. Iglesia de San Anastasio. 1941. Jean-François Peiré, Inventaire général Région Occitanie (France).

desplegadas. Por encima de la figura de Cristo aparece la paloma del Espíritu Santo[99].

La escena del otro muro de la iglesia muestra el milagro de San Anastasio, el titular de la iglesia. La primera evoca el momento en que hizo brotar una fuente mientras se dirigía desde Pamiers a la abadía de Lézat- sur -Léze; el lugar donde surgió la fuente se convirtió en lugar de devoción y peregrinación local. La segunda narra la procesión anual celebrada el primer domingo de mayo en esta fuente milagrosa. Es una obra curiosa ya que además de las figuras del sacerdote y los monaguillos, Díez realiza retratos individualizados de los feligreses de Saint Martin d´Oydes,

99 https://www.pop.culture.gouv.fr/notice/palissy/IM09000577 [consulta 16/03/2024]

Isaak Díez. *San Anastasioren miraria (xehetasuna).* San Anastasio eliza. Milagro de San Anastasio (detalle). Iglesia de San Anastasio. 1941. Jean-François Peiré, Inventaire général Région Occitanie (France).

eskuinaldean, santuaren zaldiaren uhalei eusten die. Inguru horretan bertan, hiru emakume santu belauniko daude otoitz egiten. Konposizioaren ezkerraldean, atzealdean, Golgota edo Kalbario mendia dago eta, bidean, eskaleari laguntzen gelditu ez ziren bi pertsona ikusten dira. Bigarren lanaren irudikapenean, Martinek Kristo ikusten du ametsetan, Martinen longaina soinean daramala, eta hauxe diotse aingeruei: *Martinek, oraindik ere kristaugaia besterik ez denak, mantu honekin estali ninduen*. Santua alboz ageri da, belauniko, eta badirudi Kristoren oinetan musu ematen duela. Azken hori ere alboz ageri da hodei baten gainean, hegoak zabalik dituzten zortzi aingeruz inguratuta. Kristoren irudiaren gainetik Espiritu Santuaren usoa agertzen da[99]

99 https://www.pop.culture.gouv.fr/notice/palissy/IM09000577 [kontsulta: 2024/03/16]

Isaak Díez.*San Anastasio elizako horma pinturetako sinadura.* Firma de las pinturas murales de la iglesia de San Anastasio. 1941. Jean-François Peiré, Inventaire général Région Occitanie (France).

hombres, mujeres y niños. Todos ellos están situados en un paisaje esquemático, con un árbol sin hojas en primer plano que marca el plano de la composición[100]. Son obras realizadas sobre la capa de yeso de la pared de la iglesia, lo que denota la precariedad y la escasez de medios en que se movía nuestro artista.

En la zona del coro realiza dos pinturas más. En primer lugar, destacamos un Cristo de tamaño gigantesco que camina por un campo arado con campesinos a ambos lados. Cristo extiende sus brazos en señal de bendición y protección y, de ellos, parecen surgir haces de luz. El otro cuadro representa a la Virgen con el Niño en brazos. Se muestra en un campo de trigo, en el momento de la cosecha, y tiene dos figuras femeninas arrodilladas a cada

100 https://inventaire.patrimoines.laregion.fr/dossier/IM09000576 [consulta 16/03/2024]

Elizako beste hormaren eszenak San Anastasioren miraria darakutsa, hau da, elizaren titularrarena. Lehen irudiak Pamiers herritik Lézat-sur-Lèze herriko abadiara zihoanean, iturri bat jariarazi zueneko gertaera erakusten du; iturria jariatu zen lekua tokiko debozio eta erromesaldi leku bilakatu zen. Bigarren irudiak maiatzeko lehen igandean mirarizko iturri horretan urtero egiten den prozesioaren berri ematen digu. Lan bitxia da, apaizaren eta elizmutilen irudiez gain, Diezek Saint Martin d'Oydes herriko eliztarren, gizon, emakume eta haurren banakako erretratuak margotu baitzituen. Guzti-guztiak paisaia eskematiko batean kokatuta daude, hau da, aurrean ageri den eta konposizioaren planoa adierazten duen hostorik gabeko zuhaitz baten alboan[100]. Elizako hormako igeltsuzko geruzaren gainean egindako lanak dira; horrek argiro erakusten digu gure artista eskasian eta baliabideen behartasunez bizi zela.

Koruaren inguruan, beste bi lan margotu zituen. Lehenik eta behin, soro goldatu batetik zehar doan Kristo erraldoia nabarmenduko dugu, alde banatan nekazariak dituela. Kristok besoak luzaturik ditu bedeinkapena eta babesa adierazteko besoetatik argi sortak sortzen direla dirudi. Beste margolanean, Haurra besoetan daukan Ama Birjinaren irudia agertzen da. Galsoro batean dago, uzta biltzeko unean, eta bi emakume ageri dira alde banatan, belauniko. Horietako bat emakume zaharra da, burua kapela batez estalita duena, eta bestea emakume gaztea. Bi-biek burua goraturik dute Ama Birjinaren aldera eta galburuak eskaintzen dizkiote. Haurrak eta Ama Birjinak, berriz, artaburuak dituzte eskuetan. Bi margolan horietan, bikain irudikatu zituen egileak lana eta nekazaritza munduko zereginak[101].

Eliza horretan, urtebete lehenago, 1940an, Aralarko San Migelen

100 https://inventaire.patrimoines.laregion.fr/dossier/IM09000576 [kontsulta: 2024/03/16]

101 https://www.pop.culture.gouv.fr/notice/palissy/IM09000555 [kontsulta: 2024/03/16]

Isaak Díez. *Ama Birjina umearekin San Anastasio elizako koruan.* Virgen con el Niño en el coro de la iglesia de San Anastasio. 1941. Jean-François Peiré, Inventaire général Région Occitanie (France).

lado. Una de ellas es una anciana, con la cabeza cubierta por un sombrero, y la otra es una mujer joven. Ambas levantan la cabeza hacia la Virgen y le ofrecen espigas de trigo. El Niño Jesús y la Virgen sostienen mazorcas de maíz. Ambas obras son un buen ejemplo de la representación del trabajo y las labores del mundo agrícola[101].

En esta iglesia había realizado también un año antes, en 1940, una imagen de San Miguel de Aralar. Es un altorrelieve, tallado directamente en una de las columnas de la iglesia. La iconografía muestra al arcángel enarbolando sobre su cabeza la Cruz de Cristo mientras pisa con sus pies al demonio. De esta forma, San Miguel vence al mal a través de la Cruz de Cristo, que muere en ella para salvar a los hombres. Así, Cristo se nos presenta como el verdadero vencedor del mal y el arcángel como el anunciador de esa buena noticia. La elección del tema no es casual ya que el Partido Nacionalista Vasco proclamó a San Miguel, *Mikel Deuna*,

101 https://www.pop.culture.gouv.fr/notice/palissy/IM09000555 [consulta 16/03/2024]

